



#DenonKaleak

Genero-ikuspegia txertatuz Soraluzeko Espazio Publikoen diagnostikoa eta Berrantolaketa-Plana

Prozesuaren emaitza



SORALUZKO
UDALA

Sustatzailea
Soraluzeko Udala



LURRALDE PLANGINTZA,
ETxebizITZA
ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES

Lan honek **Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren** dirulaguntza jaso du



Aholkularitza teknikoa eta idazketa
Projekta Urbes

Aurrekariak.....	3
Prozesuaren diseinua.....	5
Espazio publikoa eta genero-ikuspegia.....	6
Diagnostikorako ardatzak.....	7
Diagnostiko partekatua.....	20
Herritarren Foroa.....	20
Emakumeen Mahaia.....	24
Herritarren galdetegia.....	25
Haur eta nerabeen galdetegia.....	40
Proposamenak.....	44
SAPA.....	45
Estaziño.....	46
Frontoi ingurua.....	47
Plaza Zaharra + Erregetxe + Ur-txorrotak.....	48
Trafikoa baretzeko aukerak.....	49
Proposamenei ekarpenak.....	50
Ondorio orokorrak.....	53
Berrantolaketa planaren sintesia.....	56
Eranskinak.....	59

Aurrekariak

Datozen urteotan garapen urbanistiko garrantzitsuak aurreikusten dira Soraluzean. Horien artean nabarmentzekoak dira SAPAko pabilioiaren birgaitzea eta Olaldeako eraldaketa urbanistikoa. SAPAri dagokionez, herritarrentzako erreferentziako erabilera anitzeko espazio estali bat sortuko da herrigunearen iparraldeko muturrean, eta hegoaldean, berriz, Olaldeako garapenak inguru handi bateko mugikortasuna eta espazio publikoak hobetuko ditu, Deba ibaiaren gaineko egin nahi den zubi berriak Txurruken eta Errekaldeko auzotarren erdigunerako joan-etorriak asko erraztuko lituzkelarik. Gainera, gune horretarako aurreikusten diren igogailua eta bidegorriak udalerrri mailako eragina izatea espero da.

Kontuan hartu behar da bi eremuak ibaiaren ondoan kokatzen direla, eta eraldaketa hauen eskutik herriguneak ibaiarekin duen harremana bera aldatuko dela. Esku-hartze hauek puntualak ez direla ohartuta, udalerrri mailako azterlana egitea ezinbestekoa da, begirada guztien erdigunean espazio publikoaren kalitatea jarritz. Berrantolaketa honetarako bi giltzarri nabarmendu dira: **espazio publikoaren topaketarako baliabide gisa ulertzea batetik, eta bestetik genero-ikuspegia txertatzea eraldaketa hauetan herritar guztien beharrak eta desioak kontuan hartuko direla bermatzeko.**



Egungo egoeraren azterketa genero-ikuspegitik

Herritarrekin batera, udalerriko espazio publikoen sarearen eta espazioen antolaketaren diagnostikoa egin da, besteak beste honako alderdiak aztertuz:

- Dotazioa eta espazioen banaketa geografikoaren oreka.
- Espazioen banaketa: azaleraren arabera, erabilera nagusiaren arabera, hierarkiaren arabera (udalerrri mailakoak, auzo mailakoak, espazio domestikoak, ekipamendu publikoei lotutakoak...).
- Espazioen arteko loturak, trafikoaren eragina eta zaintzaren mugikortasun-sarearekin harremana.
- Eguneroko bizimodurako, autonomiarako edo eta mendekotasunaren zaintzarako ekipamendua eta egokitasun-maila.




Prozesuaren diseinua

Formakuntza eta parte-hartzea bateratuko dituen **prozesu hirukoitza** antolatu da, Udal teknikariek, Udal ordezkari politikoekin eta herritarrekin batera garatu dena, talde bakoitzarekin hiruna lanketa-saiorekin. Horietaz gain, Haurren eta Nerabeen Kontseiluen parte-hartzea ere egin da.

Parte-hartze prozesua, beraz, **hiru pausotan** antolatu da:

1. Prozesuaren aurkezpena eta lanketako ardatzen azalpena.
2. Diagnostiko partekatua, azpialdeetan. Galdetegiak.
3. Landutako proposamenen lanketa, elkarlanean.



Espazio publikoa eta genero-ikuspegia

Genero-ikuspegitik espazio publikoen erabilera aztertzean agerian geratu ohi dira hainbat eta hainbat desoreka. Egitasmo honen xedea **Soraluzeko espazio publikoen azterketa eta berrantolaketa genero-ikuspegitik** abiatuta egitea izanik, gaiari hurbilketa bat egitea ezinbestekoa izan da. Horretarako, kolektibo eta talde ezberdinetara jo da, oinarriko formakuntzaz gain, diagnostikorako gakoak izango diren horien bila.

Aurreko atalean azaldu bezala, hauek izan dira talde ezberdin horiek:

- **Haurrak**, Haur Kontseiluaren bitartez.
- **Nerabeak**, Nerabeen Kontseiluaren bitartez.
- **Adinekoak**, “Goazen Soraluze”ko ibilaldietako bat baliatuz.
- **Emakume migratuen taldea**, “Zabaltzen” eta “Sartu” programaren baitan.
- **Herritarrak**, oro har, deialdi irekiaren bitartez.



(Parte-hartze memorian jaso da bilera hauen berri.)

Diagnostikorako ardatzak

Genero-ikuspegitik egin ohi diren gabezietan oinarritutako azterketei ikuspegi positiboa eranstea proposatu da: ikuspegi positibo horrek herriaren irudi osoagoa ematen digu.

Espazio publikoaren gabeziak


Gabeziak bilatzean "ukatzen zaizkigun espazioak" eta "geure buruari ukatzen dizkiogun espazioak" identifikatu, aurkitu eta deskribatzen ditugu. Hurrengo ardatzetan oinarritutako diagnostikoa proposatzen dugu (genero-egiturek baldintzatuta daudenak, nahiz eta horietako batzuek oraindik ere neutraltasun-tratamendua jasotzen duten).

Sexu-eraso eta -mehatxuen aurreko segurtasuna. Segurtasun "erreal" edo "objektiboa" eta "hautemandakoa" hartzen dira kontuan.

Osotasun fisikorako kalte eta arriskuen aurrean babesa. Bereziki trafikoak eragiten dituen kalte eta arriskuekin lotuta dago. Generoarekiko harremana ez da bakarra da: batez ere gizonak (gazteak) sortzen dute arriskua, herri eta hierietan harrapatzeak emakumeak (adinekoak) jasaten dituzte batez ere, eta zaintza behar duten pertsonen autonomia galtzeak (haurrek, adinekoak) lan-karga handiagoa eragiten die batez ere emakumeei.

Irisgarritasun unibertsala. Batez ere irisgarritasun fisikoa hartzen da kontuan, nahiz eta ingurune fisikoaren irisgarritasun sentsorialari, kognitiboari eta organikoari ere erreparatzen zaion. Generoarekin lotura bikoitza du irisgarritasunak: alde batetik, desgaitasun-egoeran dauden pertsonen artean askoz gehiago direlako emakumeak gizonak baino, eta, bestetik, desgaitasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko lanak batez ere emakumeak egiten dituztelako.

Mugikortasuna. Udallerriaren antolaketa orokorrak, ekipamenduen banaketak eta kokapenak, bai eta garraio-sistemak berak herritarrengan duten eragina aztertzen da, autonomiaren zein denbora-errentaren gainean dituzten eragin desberdinak kontuan hartzen direlarik. Hauetaz gain, "zaintzaren mugikortasuna" deitutakoaren ezaugarri berezien gainean jartzen da arreta. Hauetan guztietan dago zer esana genero-ikuspegitik: aniztasunaren begiradatik.





Espazio publikoren aktiboak

Lanketak eremu pertsonalean zein komunitarioan zaintzen eta zainduak izaten laguntzen diguten baliabide (formalak, informalak) gisa hautematen edo erabiltzen ditugun espazioak identifikatu, aurkitu eta deskribatzean datza.

Ongizatea. Ongizate fisikoari eta mentalari dagokionez positibotzat jotzen diren espazioak aztertzen dira.

Elkarbizitza eta garapen komunitarioa. Bizikidetzari dagokionez positibotzat jotzen diren espazioak aztertzen dira.


Erreprodukzio-lana eta zainketak. Adinekoen edo mendetasun-egoeran dauden pertsonen hazkuntzari eta zaintzari dagokienez positibotzat jotzen diren espazioak aztertzen dira, kontziliazioa ere kontuan hartuz.

Presentzia. Biztanleria-talde desberdinen (sexuaren, adinaren eta abarren arabera) premiei edo lehenatasunei, edota auzo bakoitzaren baldintzei modu positiboan egokitzen zaizkien espazioak identifikatzen eta aztertzen dira. Gainera, ekitatea ere aztertuko da, hau da, ze neurritan asetzen diren desabantaila-egoera handienean dauden biztanle-taldeen edo auzoen beharrianak.



Erasoekiko segurtasuna
Seguridad ante agresiones

...there must be [social] eyes upon the street, eyes belonging to those we might call the natural proprietors of the street (Jane Jacobs).




1 Espazio publikoek inguruko etxebizitza eta establezimenduetatik berezko zainntza jasotzen dute.
— Los espacios públicos cuentan con vigilancia natural desde las viviendas y los establecimientos del entorno.

2 Erabileren nahasketaren eraginez espazio publikoan etengabe jendea dago eta dabil, egun osoan zehar.
— La mezcla de usos genera en el espacio público la presencia y el paso continuo de personas a lo largo de todo el día.

Franziska Ullmann, Margarete Schütte Lihotzky Hof, Wien (1996)

Erasoekiko segurtasuna
Seguridad ante agresiones



3 Ez dago ezkutalekurik, ikuseremuak zabalak dira eta argiztapena egokia da ibiltarientzat.
— No hay escondites, los campos visuales son amplios y la iluminación es adecuada para viandantes.

4 Nahitaezko pasabideak modu egokian landu dira, segurtasun-pertzepzioa areagotuz.
— Los puntos de paso obligados se han tratado de forma adecuada, incrementando la percepción de seguridad.

Erasoekiko segurtasuna

Dimentsio honen helburua da ikustaraztea desberdinkeriak daudela ingurune eta baliabideetarako irismenen autonomoan, eraso eta mehatxu fisiko, sexual eta/edo sexisten inguruko segurtasunaren arabera, eta gainera, desberdinkeria horiek ezabatzen edo murrizten laguntzea.

Zergatik proposatu da dimentsio hau?

Eraso edo mehatxu fisiko, sexual eta/edo sexisten beldur izateak mugatu edo baldintzatu egiten duelako espaziorako eta baliabideetarako sarbidea eta, beraz, norberaren autonomia. Badakigu egoera hau askoz okerragoa dela emakumeentzat gizonentzat baino, eta egoera larriagoa dela beste desberdinkeria-ardatz batzuek zeharkatzen dituzten biztanle-taldeetan, hala nola adinak (haurrak, adineko pertsonak), sexu-orientazioak, etniak, gaitasun funtzionalak eta abar.

Zer gehiago dakigu?

- Erasoen protagonistak batez ere gizonak izaten dira, eta ia eraso sexual eta/edo sexista guztiek emakumeak dituzte biktima.
- Gauzez bakarrik irteten ez direla dioten pertsonen proportzioa bikoitza baino gehiago da emakumeen artean gizonen artean baino. Eta eremu jakin batzu saihesteko estrategiak erabiltzen dituztenen artean, emakumeak ere gehiengo dira.
- Espazioaren ezaugarri jakin batzuek baldintzatzen dute segurtasunik ezaren pertzepzioa, eta eragin hau handiagoa da ingurunea ezagutzen ez dutenengan.

Zein hiri-faktorek eragiten dute egoera honetan?

- Ibilbide edo espazio nagusietan ezkutaleku edo ikuseremu mugatuak egotea.
- Argiztapen baxua edo desegokia oinezkoen ibilbideetan edo espazio publikoan.
- Erabilera gutxi egotea eta hauen aniztasuna baxua izatea, honek zaildu egiten baitu pertsonak espazio publikoan etengabe egotea edo igarotzea, eguneroko edo asteko zikloan zehar.
- Inguruko etxebizitzek eta establezimenduek zaintza natural eskasa ematea espazio publikoari.
- Nahitaezko pasaguneak, batez ere gorago adierazitako faktoreetako baten edo gehiagoren eraginpean badaude.


Egoera larriagotzen duten beste faktore edo ingurune batzuk:

- Gaua, bakardadean ibiltzea, inguru zikinetan edo mantentze-lan gutxirekin... Zikinkeriarri edo bandalismoari buruz, proposatzen da ez hartzea faktore “neutro” gisa: gehienetan gizonak eragindakoak dira eta espazio publikoan uzten dituzten “genero arrasto” gisa hartzea eta ulertzea proposatzen da.
- Alkohola kontsumitzen den inguruak, gizon gazteak edo helduak nagusi diren gunek, etab.

Kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk:

- Segurtasun falta duten inguruek -edo hala hautematen direnek- lan-karga gehiago eragiten dute zaintzaileengan (emakumeak, gehienbat).





1
Orokorreen, bide-sarearen diseinuan trafikoa murrizteko eta honen abiadura mantsotzeko neurriak bertatu dira.

En general, en el diseño de la red viaria se han incorporado medidas de disuasión del tráfico y reducción de su velocidad.

2
Oinezkoen, bizikleten eta kotxeen arteko harremana egokia da: batzutan bananduz, bestetan kaleak segurtasunez partekatuz.

La relación entre viandantes, bicicletas y coches es adecuada: unas veces segregados y otras veces compartiendo las calles en condiciones de seguridad.



3
Pertsona zaurgarriagoak gehiago mugitzen diren inguruneetan neurri bereziak hartu dira trafikorekin aurrean.

En los entornos con mayor presencia de personas más frágiles se han tomado medidas especiales frente al tráfico.

4
Espazio publikoaren diseinua aisialdi-jarduerak eta jolasa gainontzekoekin bateragarri egiten ditu, segurtasun baldintza egokietan.

El diseño de los espacios públicos hace compatibles las actividades de ocio y juego con el resto, en condiciones de seguridad.

Trafikoarekiko babesa

Dimentsio honen helburua ingurune eta baliabideetarako irismenen autonomoan desberdinkeriak daudela ikusaraztea da, trafikoak eragindako arrisku eta kalteen aurreko babesaren arabera.

Zergatik proposatu da dimentsio hau?

Kotxeek edo bestelako ibilgailuek eragindako istripu bat jasateko beldur izateak mugatu edo baldintzatu egiten duelako espaziorako eta baliabideetarako sarbidea eta, beraz, norberaren autonomia. Badakigu egoera hau okerragoa dela emakumeentzat gizonentzat baino eta egoera hori larriagotu egiten dela beste ardatz batzuek zeharkatzen dituzten biztanleria-taldeetan, hala nola adinak (haurrak, adineko pertsonak) edo gaitasun funtzionalak.

Zer gehiago dakigu?

- Ingurune babesgabe batek (edo horrela hautematen den inguru batek) lan-karga gehiago sortzen du zaintzaileengan, hauetako gehienak emakumeak izanik.
- Beldurrik zabalduena ibilgailu baten harrapaketa jasatea da, eta gogorragoa da gidatzen ez duten pertsonen artean. Gainera, adineko pertsonak erorketen beldurra adierazten dute (bizikletak, patineteak, baloiak eraginda), eta hurrek, berriz, txakurrekiko beldurra adierazten dute (solteak, handiak, dinamikoak, beltzak).
- Adinekoen artean, erorketak eta erortzeko beldurra (prebalentzia eta intentsitate handiagoarekin emakumeen artean) lotuta daude konfiantza-galeraren, erorketa gehiagoren, jarduera fisikoaren eta sozialaren murrizketaren, eta ondorengo mendekotasun eta gizarte-isolamenduaren ahulezia sortzen duen espiral batekin.
- Gidatzean jokabide ausartenak edo oldarkorrenak gizonetakoek protagonizatzen dituzte. Hiriko harrapatzei dagokienez, erasotzailea gizon gaztea edo heldua izan ohi da, eta biktimak, berriz, emakume adinekoak.
- Oinezkoen guneetan arazo espezifiko bat sortzen da, salgaien trafikoari eta zamalanetako maniobrei dagokienez.
- Hiri bateko trafikoa ez da gertatzen: plangintza eta diseinu zehatz baten emaitza da, eta, beraz, baita haren arriskugarritasuna ere.

Zein hiri-faktorek eragiten dute egoera honetan?

- Eremu bateko eta inguruko mugikortasun-sarea: plangintza, erregulazioa, banaketa modala, lehentasunak ezartzea.
- Kaleen diseinua: adibidez, oinezkoek eta ibilgailuek espazio bakarra partekatzen duten plataforma bakarreko kaleak arriskutsuagotzat hartzen dituzte pertsona zaurgarrienek (hurrek, adinekoek edo desgaituek, etab.).
- Zamalanekin lotutako maniobrak, merkataritza- eta ostalaritza-establezimendu dentsitate handia duten guneak.

Irisgarritasuna
Accesibilidad



1 Espazio eta eraikin publikoetan mugikortasun urriko pertsonen irisgarritasuna bermatzen da, eta ikusmen/entzumen urrikoena areagotzeko neurriak hartu dira.

En los espacios y edificios públicos se garantiza la accesibilidad de las personas con movilidad reducida, y se han tomado medidas para incrementar la de las personas con deficiencia visual y auditiva.

2 Ingurune fisikoan irisgarritasunaz gain, erakunde publikoen zerbitzuak irisgarriagoak egiteko neurriak hartu dira.

Además de la accesibilidad de los entornos físicos, se han tomado medidas para incrementar la accesibilidad de los servicios que proporcionan las entidades públicas.

Irisgarritasuna
Accesibilidad



3 Oztoporik ez izateaz gainera, irisgarritasun autonomoa babesteko elementu egokiak daude, kokapen egokietan: eserlekuak, iturriak, komunak...

Además de no existir barreras, existen elementos adecuados de apoyo a la accesibilidad autónoma, en ubicaciones adecuadas: bancos, fuentes, aseos...

4 Autonomia bermatzeaz gain, inguruneen diseinuan kontuan hartu dira zaintzaileen presentzia eta beharrak.

Además de garantizar la autonomía, en el diseño de los entornos se han tenido en cuenta la presencia y necesidades de las personas cuidadoras.

Irisgarritasuna

Dimentsio honen helburua da ikustaraztea desberdinkeriak daudela sarbide autonomoan, ingurune eta baliabide unibertsal irisgarri eta gaitzaileen bitartez, eta, gainera, desberdinkeria horiek ezabatzen edo murriztuen laguntzea.

Zergatik proposatu da dimentsio hau?

Inguruneen irisgarritasun ezak mugatu edo baldintzatu egiten duelako espaziorako eta baliabideetarako sarbidea eta, beraz, norberaren autonomia. Badakigu egoera hau okerragoa dela emakumeentzat gizonentzat baino eta egoera hori larriagotu egiten dela beste ardatz batzuek zeharkatzen dituzten biztanleria-taldeetan, hala nola adinak (haurrak, adineko pertsonak) edo gaitasun funtzionalak.

Zer gehiago dakigu?

- Gaitasun funtzionalaren galera oso lotuta dago zahartze-prozesuarekin, eta horrek azaltzen du desgaitasuna askoz ere nagusiagoa izatea emakumeen artean gizonen artean baino.
- Proiektuaren esparruko desgaitasun garrantzitsuenak hauek dira: fisikoa (mugikortasun murriztua, esforu-gaitasun txikia), sentsoriala (itsualdia, ikusmen murriztua) eta kognitiboa (ingurunea orientatzeko edo interpretatzeko gaitasuna).
- Ingurune gaitzaileek desgaitasuna duten pertsonentzat hartuko genukeenen kopurua gutxitzen dute (desgaitasuna gizarte-eraikuntza gisa).
- Desgaitasunari aplikatutako genero-ikuspegiak bi alderdi garrantzitsu ditu:
 - Irisgarritasun baxuko inguruneek zaintza-lanen gainkarga sortzen dute zaintzaileengan, eta hauek emakumeak dira gehiago batean.
 - Irisgarritasunari dagokionez “autonomia pertsonala” izanik helburu nagusia, normala da araudietan erreferentziatzeko subjektua norbanakoa izatea, eta, beraz, baita bere dimentsioak ere. Baina genero-ikuspegitik adierazten da arauak ez dituela aintzat hartzen “autonomia lagunduaren” ohiko egoerak (desgaitasuna duen pertsona bat zaintzaile baten laguntza jasotzen), eta benetan bi gorputzek osatzen duten subjektu baten dimentsioak ere kontuan hartzea eskatzen du.

Zein hiri-faktorek eragiten dute egoera honetan?

- Batez ere kota-jauziak, maldak eta zoladuraren ezaugarriak.
- Oztopo ez-iraunkorrek (ibilgailuak, terrazak, etab.) espazio publikoa eta oinezkoentzako ibilbideak okupatzea.
- Ingurua hautematen edo interpretatzen (argiak, seinaleak), lasaitzen (eserlekuak, iturriak, komunak) laguntzen duen hiri-altzaririk ez egotea.
- Hirigune historikoak ondareztat hartzea, eta horrek egokitzea zailtzen du, etxebizitza-erakinetan ondorio garrantzitsuak eraginez.

Egoera larriagotzen duten beste faktore batzuk:

- Proiektugileek eta arduradun publikoek malgutasunez betetzea irisgarritasunaren arloko araudietan eskatzen diren baldintzak.



Mugikortasuna
Movilidad

"Prohibir el coche no es la solución: el coche debe ser un invitado, no anfitrión." (Marius Navazo)



- 1** Oinezkoentzako sarea segurua lehenetsia, jarraia, irisgarria eta erosoa da, gune garrantzitsuenak zuzenean lotzen dituelarik.
—
La red de movilidad peatonal es segura, prioritaria, continua, accesible y cómoda, y conecta directamente los puntos más importantes.
- 2** Espaloiak eta oinezko espazioak diseinuan bestelako jarduerak ere hartu dira kontuan (harremanak, jolasa, atsedenak, zaintza...).
—
En el diseño de las aceras y los espacios peatonales también se han tenido en cuenta otras actividades (relaciones sociales, juego, descanso, cuidados...).
- 3** Bizikletazko sarea osoa, segurua eta erosoa da, bere erabilera sustatzeko neurriak hartu direlarik.
—
La red ciclista es completa, segura y cómoda, y se han adoptado medidas para fomentar su uso.

Mugikortasuna
Movilidad

US Census Report: 1900
"Few articles ever used by man have created so great a revolution in social conditions, as the bicycle."



- 4** Garraio publikoaren sarea eta zerbitzua egokiak dira, bai auzoen eta udal-zerbitzuen artean, eta baita beste udalerriekin loturan ere.
—
La red y el servicio de transporte público son adecuados, tanto entre barrios y servicios municipales, como en la conexión con otros municipios.
- 5** Herrigunean eta auzoetan kobxeen erabilera soilik beharrezkoak diren joan-etorrietara doitzeko neurriak hartu dira.
—
En el casco urbano y en los barrios se han tomado medidas para ajustar el uso del coche solo a los recorridos necesarios.
- 6** Herrigunean eta auzoetan aparkalekuen eskaintza gutxienera doitu da, espazio publikoaren banaketa orekatua bermatuz.
—
En el casco urbano y en los barrios la oferta de aparcamiento se ha ajustado al mínimo, garantizando el reparto justo del espacio público.

Mugikortasuna

Dimentsio honen helburua da ikustaraztea desberdinkeriak daudela baliabideak eskuratzean eta lurraldean, desplazatzeko moduaren arabera, eta gainera, desberdinkeria horiek ezabatzen edo murrizten laguntzea.

Zergatik proposatu da dimentsio hau?

Pertsonen premiekin, gaitasunekin edo mugikortasun-ohiturekin bat ez datozen hiri-ehunek edo mugikortasun-sistemek, mugatu edo baldintzatu egiten duelako espaziorako eta baliabideetarako sarbidea eta, beraz, norberaren autonomia. Badakigu egoera hau okerrago dela emakumeentzat gizonentzat baino eta egoera hori larriagotu egiten dela beste ardatz batzuek zeharkatzen dituzten biztanleria-taldeetan, hala nola adinak (haurrak, adineko pertsonak) edo gaitasun funtzionalak, bai eta ibilgailurik ez duten edo gidatzen ez duten pertsonen artean ere.

Zer gehiago dakigu?

- Lanaren ondoriozko joan-etorriak (produktiboa, ordaindua), gehienbat motordun ibilgailu pribatuan egiten direnak eta gehiago gizonen emakumeek baino, dira, hain zuzen, mugikortasunaren plangintzan eta diseinuan arreta gehien jartzen zaienak.
- Zaintzaren mugikortasunak (ondotik joatea, laguntza), batez ere oinez eta emakumeek egindakoak, ez du beste desplazamendu batzuen arreta bera jasotzen.
- Gizonezko gidarien errolda emakumezko gidariena baino askoz handiagoa da.
- Hiri bateko trafikoa ez da gertatzen, diseinatu egiten da.

Zein hiri-faktorek eragiten dute egoera honetan?

- Eremu bateko eta inguruko mugikortasun-sarea eta -sistematik: plangintza, kudeaketa, banaketa modala, lehentasunak ezartzea...
- Kaleen banaketa espaziala, diseinua edo ekipamendua.
- Ibilgailu motordun pribatuen trafikoa eragiten duten erabilerak egotea (aparkalekuak, adibidez).
- Ibilgailu motordun handien trafikoa eragiten duten erabileren dentsitatea (ostalaritza- edo merkataritza-establezimenduak).

Kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk:

- Mugikortasun-inkesta askok ez dituzte sexuaren arabera bereizten emaitzak, ikusezin bihurtzen dute "zaintzaren mugikortasuna" edo ikusezin bihurtzen dituzte oinez edo bizikletaz egiten diren desplazamenduak.

Ongizatea
Bienestar



1
Auzoetan biztanleen osasuna babesteko neurriak ari dira hartzen, kalte eta arriskuekiko esposizioa saihestuz edo murriztuz.

Se están tomando medidas para proteger la salud de los habitantes de los barrios, evitando o reduciendo la exposición a daños y peligros.

2
Auzoetan kalitatezko jarduera fisiko barneratzaile, segurua eta anitza (kirola, paseatzea, jolasa...) sustatzen duten inguruneak daude.

En los barrios existen entornos que fomentan la actividad física de calidad inclusiva, segura y diversa: deporte, paseo, juego...

3
Auzoetan garapen pertsonal eta komunitarioako ekipamendu egokiak (aisialdia, kultura, kirola, heziketa...) daude.

En los barrios existen equipamientos adecuados para el desarrollo personal y comunitario (ocio, cultura, deporte, educación...).

Ongizatea
Bienestar



4
Auzoak ingurune naturalarekin edo landa-ingurunearekin lotuta daude, eta hiriguneko espazio publikoetan elementu naturalak txertatu dira: landaretza, ura...

Los barrios están conectados con los entornos natural o rural, y en los espacios públicos urbanos se han incorporado elementos naturales: vegetación, agua...

Ongizatea

Dimentsio honen helburua da ikustaraztea desberdinkeriak daudela pertsonen ongizate eta garapen baliabideetarako sarbidean, eta gainera, desberdinkeria horiek ezabatzen edo murrizten laguntzea.

Zergatik proposatu da dimentsio hau?

Izan ere, bizi-baldintza txarrek eta pertsonen premiekin, gaitasunekin edo ohiturekin bat ez datozen inguruneek eragina dute norbanakoen ongizatean eta garapenean. Badakigu egoera hau okerragoa dela emakumeentzat gizonentzat baino eta egoera hori larriagotu egiten dela beste ardatz batzuek zeharkatzen dituzten biztanleria-taldeetan, hala nola maila sozioekonomikoa, migrazio-estatusa, arrazalizioa edo sexu-orientazioa.

Zer gehiago dakigu?

- Emakumeen osasuna gizonena baino okerragoa da, eta azalpenik onena ez da sexuan oinarritzen, generoan baizik.
- Generoak ere laguntzen du gizonen zenbait ondoez eta gertaera azaltzen.
- Osasuna (fisikoa, mentala eta soziala) pertsonak jaio, hazi, bizi, lan egin edo zahartzen diren zirkunstantziak baldintzatzen dute, eta osasunaren determinatzaile sozial horiek azaltzen dute biztanleria-talde batzuek besteek baino osasun kaskarragoa izatea.
- Osasun-arloko desberdintasunak (bidegabeak, sistematikoak eta saihesgarriak diren desberdintasunak) ez dira faktore biologikoen edo pertsonen hautu indibidualen ondorio; aitzitik, pertsonengan gurutzatzen diren eta politika publiko eraginkorren bidez alda daitezkeen faktoreen arabera dira: generoari beste batzuk gehitzen zaizkio, hala nola maila sozioekonomikoa, migrazio-estatusa, arrazalizioa edo sexu-orientazioa.
- Kalitatezko espazio berdeak onuragarriak dira osasun mentalerako: frogatuta dago estresa murrizten dutela, baita kontaktua ikusizkoa baino ez denean ere (etxetik parke bat edo ibaia ikustea, adibidez).

Zein hiri-faktorek eragiten dute egoera honetan?

- Agente kutsatzaile edo kaltegarrien eraginpean egotea (adibidez, zarata).
- Oinezko edo bizikletazko joan-etorriak lehenestera bideratutako jarduerak, bai eta autoaren erabilera eragoztera bideratutakoak ere.
- Osasuna eta ongizatea sustatzen duten kalitatezko eguneroko baliabideak benetan eskuratzea: erosketa eta elikadura osasungarria errazten duten inguruneak, jolaserako edo jarduera fisikorako baliabideak, ingurune naturalarekiko konexioa eta espazio berde edo urdinak, garapen pertsonalerako ekipamenduak...

Elkarbizitza
Convivencia



1
Auzoetan edo hauen artean ia ez da gizarte-bereizketarik hautematen (klase sozioekonomikoa, adina, jatorria...).

Apenas se aprecia segregación social (clase socioeconómica, edad, origen...) en los barrios o entre ellos.

2
Erosu esertzeko, atseden hartzeko eta auzoko bizitzan parte hartzeko diako espazioak daude.

Existen espacios para sentarse, relajarse y participar de la vida del barrio en condiciones confortables.

Elkarbizitza
Convivencia



3
Topaketa eta harreman sozial barneratzaileak sustatzen dituzten inguruneak (guneak eta uneak) zaintzen dira.

Los entornos (espacios, momentos) que fomentan el encuentro y las relaciones sociales inclusivas están cuidados.

4
Ekipamendutako espazioetan eta zerbitzueta aniztasuna eta elkarbizitzaren sustapena kontuan hartzen dira.

En los espacios y servicios de los equipamientos se tienen en cuenta la diversidad y el fomento de la convivencia.

Elkarbizitza

Dimentsio honen helburua da ikustaraztea desberdinkeriak daudela osasun eta garapen komunitariorako baliabidetara iristeko edo hauek eskuratzeko, eta gainera, desberdinkeria horiek ezabatzen edo murrizten laguntzea.

Zergatik proposatu da dimentsio hau?

Izan ere, komunitateen premiekin, ohiturekin eta pertsonen behar sozialekin bat ez datozen inguruneek eragina dute komunitatearen ongizatean eta garapenean. Badakigu elkarbizitza- eta komunitate-sareek ongizaterako baliabideak eskuratzeko gabeziak konpentsatzen laguntzen dutela: horregatik dira garrantzitsuagoak emakumeentzat gizonentzat baino, eta are garrantzitsuagoak beste ardatz batzuek zeharkatzen dituzten biztanleria-taldeentzat, hala nola, adina, maila sozioekonomikoa, migrazio-estatusa, arrazaliziaiozia edo sexu-orientazioa.


Zer gehiago dakigu?

- Giza-harreman eta sare-sozial egokiak zuzenean daude lotuta osasun fisikoarekin eta mentalekin, harremana positiboa delarik.
- Maskulinitate hegemonikoak indibidualtasunari ematen dio balio gehiago komunitateari baino, eta honek gizonen zenbait ondoez eta gertaera azaltzen laguntzen du.
- Ongizate komunitarioa (fisikoa, mentala eta soziala) pertsonak jaio, hazi, bizi, lan egin edo zahartzen diren zirkunstantziek baldintzatzen dute, eta ongizate komunitarioaren determinatzaile sozial horiek azaltzen dute biztanleria-talde batzuek besteek baino osasun okerragoa izatea.
- Osasun-arloko desberdintasunak (bidegabeak, sistematikoak eta saihesgarriak diren desberdintasunak) ez dira faktore biologikoen edo pertsonen hautu indibidualen ondorio; aitzitik, pertsonengan gurutzatzen diren eta politika publiko eraginkorren bidez alda daitezkeen faktoreen araberrakoak dira: generoari beste batzuk gehitzen zaizkio, hala nola maila sozioekonomikoa, migrazio-estatusa, arrazalizioa edo sexu-orientazioa.

Zein hiri-faktorek eragiten dute egoera honetan?

- Hirien trinkotasunak eta erabileren hurbiltasun zein aniztasunak.
- Espazio publikoen kalitateak, topagunerako baliabide diren heinean.
- Ekipamendu publikoen, eta hauetan ematen den zerbitzuen, kalitateak, garapen komunitariorako tresna gisa baliatzen direnean.
- Oinezko edo bizikletazko joan-etorriak lehenestera bideratutako garraio-sistemak.

Erreproduzio-lana
Trabajo reproductivo



1 Etxebizitza, lantoki, ekipamendu eta saltokien arteko desplazamenduak uztartzea erraza da.

Es fácil encadenar desplazamientos entre la vivienda, los centros de trabajo, los equipamientos y los comercios.

2 Ekipamenduen eta zerbitzu publikoen dotazioa nahikoa, anitza eta hurbila da, baita saltokiena ere.

La dotación de equipamientos y servicios públicos es suficiente, diversa y cercana, también la de los comercios.

3 Auzoen ezaugarriek haurren eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzen du, eta bere zainntza errazten.

Las características de los barrios fomentan la autonomía de las niñas y de las personas en situación de dependencia, facilitando su cuidado.

La ville du quart d'heure

Erreproduzio-lana
Trabajo reproductivo



4 Espazio publikoak zainntza lanetarako ondo hornituta daude: komunak, eserlekuak, iturriak, aterpeak...

Los espacios públicos están bien equipados para los trabajos de cuidado: aseos, bancos, fuentes, cobijo...

5 Ekipamenduek zainntza lanetarako (komunak, elikatzea, itxarotzea...) espazio nahikoak eta egokiak dituzte, barnean eta kanpoan.

Los equipamientos cuentan, en su interior y exterior, con espacios suficientes y adecuados para los trabajos de cuidado (aseos, alimentación, espera...).

Erreproduzio lana

Dimentsio honen helburua da ikustaraztea desberdinkeriak daudela erreproduzio-lanari eta erantzunkidetasunari dagokionez funtzionalak diren eta baloratzen dituzten inguruneetan, eta gainera, desberdinkeria horiek ezabatzen edo murrizten laguntzea.

Zergatik proposatu da dimentsio hau?

Erreproduzio-lanaz arduratzeak, lan hori errazten duten baliabideetarako eta kontuan hartzen duten inguruneetarako sarbide eraginkorrik ez izateaz gain, mugatu edo baldintzatu egiten duelako pertsonen denbora librearen errenta, eta, beraz, norberaren autonomia eta ongizatea. Badakigu egoera hau okerragoa dela emakumeentzat gizonentzat baino eta egoera hori larriagotu egiten dela beste ardatz batzuek zeharkatzen dituzten biztanleria-taldeetan, hala nola klase soziala (emakumeetan).

Zer gehiago dakigu?

- Edozein adinetako emakumeek gizonak baino bi aldiz denbora gehiago ematen dute erreproduzio-lanetan.
- Emakumeen artean gaixotasun eta ondoezen prebalentzia handiagoa ez dago soilik erreproduzio-lanaren gaitzarekin lotuta, baita banaketan dagoen desberdintasunarekin ere.
- Emakumeen dedikazioak beherakada nabarmena erakusten du gizarte-klase altuenean, eta gizonena, berriz, gizarte-klasearekiko independentea da.
- Agenda politiko eta sozialean gero eta presentzia handiagoa duen arren, erreproduzio-lana gutxietsi eta ikusezin bihurtzen jarraitzen da, baita hiri-plangintzan ere.
- Eguneroko inguruneak erreproduzio-lantoki gisa planifikatzea eta diseinatzea uler eta aintzat har daiteke, haien balioa ezagutzuz, haien funtzionaltasuna bermatuz eta erantzunkidetasuna erraztuz.

Zein hiri-faktorek eragiten dute egoera honetan?

- Bizitegi-ehuna merkataritza-ehunarekin edo ekipamendu eta espazio publikoekin hornitzea, aniztasuna, hurbiltasuna eta nahasketa.
- Ekipamenduen hornidura (bereziki haurrentzako edo adinekoentzako erabilerak edo espazioak barne hartzen dituztenak), baita horien diseinua edo kudeaketa ere.
- Espazio publikoaren kalitatea eta ekipamendua: espazio estaliak, hiri-altzari eta argiteria egokiak, komunak, etab.
- Ingurune seguruak eta babestuak egotea; horrek adingabeen eta adinekoen autonomia sustatzen du, eta, horrela, zainntza-karga arintzen laguntzen du.

Laburbilduz, hiri- eta bizitegi-ingurunea erabakigarria da eta erreproduzko-lanerako baliabidea da: ingurune horretan hobekuntzak eragin positiboa du biztanleen ongizatean, bai zaintzak behar dituztenengan, bai zaintzaileengan (emakumeak, gehienbat). Eragin hori are handiagoa izango da inguruen plangintzan eta diseinuan bereziki kontuan hartu badira erreproduzko-lana errazteko edo arintzeko beste baliabide batzuk eskuratzeko aukera gutxiago dituzten zaintzaileen beharrak eta lehenetsiak.



Presentzia
Presentzia

1 Lan erreproduktiboa hirigintzari eta hiri-diseinuari dagokion erabakien mulean dago eskala eta fase guztietan.

El trabajo reproductivo está en el núcleo de las decisiones relativas a la planificación y diseño urbanos, en todas las fases y escalas.

2 Hiri-paisaia kalitatezkoa da, eta lan erreproduktiboa hartzen duten espazioak egoki zainduta daude.

El paisaje urbano es de calidad, y los espacios en los que se realiza el trabajo reproductivo están bien cuidados.

BizION
Zaintza Plan Estrategikoa
Plan Estrategiko de Gestión

Presentzia

Dimentsio honen helburua da ikustaraztea desberdinkeria daudela emakumeen benetako irudikapenean eta irudikapen sinbolikoan, eta gainera, desberdinkeria horiek ezabatzen edo murrizten laguntzea.

Zergatik proposatu da dimentsio hau?

Beste alor batzuetan gertatzen den bezala, arkitektura eta hirigintza (baita ekoizten dituzten baliabideak eta inguruneak ere) ez dira neutroak eta gizarte bakoitzaren balio-esparrua irudikatzen dute. Dokumentu honi dagokionez, egoera horren arabera, hiri-plangintzaren prozesu eta emaitzetan genero-diskriminazioak islatzen dira, baita elkarreaginean dauden gainerako diskriminazioak ere (aporofobia, arrazismoa, kapazitismoa, adinismoa...).

Zer gehiago dakigu?

- Emakumeen bizi-baldintzak gizonenak baino okerragoak dira, eta, ondorioz, haien bizi-kalitatea ere okerragoa da.
- Egoera hori larriagoa da beste desberdintasun-ardatz batzuk gurutzatzen dituzten pertsonentzat eta kolektiboentzat, hala nola maila sozioekonomikoa, gaitasun funtzionala, adina, arrazakeria, migrazio-estatusa edo bizikidetzaren unitatearen osaera.
- Hala eta guztiz ere, politika eta ekintza publikoek – adibidez, hiri-plangintzako tresnek – nekez diagnostikatzen eta artatzen dituzte espeziifikoki desberdintasun horiek.
- Era berean, desberdintasun-arrakalak murrizten lagundu beharrean, arrakalak betiketzea edo zabaltzea eragiten duten neurriak ikusten dira.
- Azalpenetako bat da, itxuraz neutroagoak diren erabaki eta metodologietan ere, gizonen esperientzia unibertsaltzat hartzen dela (emakumeena, berriz, norberarekiko desbideratze gisa tratatzen da). Egoera bera antzeman daiteke beste desberdintasun-ardatz batzuei dagokienez.
- Horrek guztiak laguntzen du emakumeek, haien presentziak (benetakoa, sinbolikoa), oroimenak, jarduerak, premiek edo eskaera espeziifikoek arreta gutxiago izan dezaten edo huts egin dezaten.

Zein hiri-faktorek eragiten dute egoera honetan?

- Espazio publikoaren banaketa bidegabea, sarritan antzeman daitekeena motordun mugikortasunak aldeko tratua jaso duen espazio libreetan, beste jarduera batzuen aldean.
- Erreproduktzio-lana (etxeko lanak edo zaintza-lanak) modu egokian artatzen ez duten inguruneak (espazio publikoak, ekipamenduak, baita etxebizitzak ere).
- Beren plangintzan eta diseinuan erreproduktzio-lana errazteko edo inklusioa bultzatzeko helburua txertatu ez duten inguruneak.

Presentzia
Presentzia

"Badirudi autoritatea ematen zaigula soilik feminismoari buruz idazten badugu" (Uxue Alberdi) ©

3 Hiri-paisaia ez da diskriminatzailea edo sexista, eta emakumeei edo lan erreproduktiboari dagokion memoria jasotzen da.

El paisaje urbano no es discriminatorio ni sexista, y se recoge tanto la memoria vinculada a las mujeres o al trabajo reproductivo.

4 Hiri-plangintzari eta hiri-proiektuei lotutako parte-hartze prozesuetan genero-ikuspegiari eta emakumeen ahotsari garrantzia eman zaie.

En los procesos participativos vinculados a la planificación y proyectos urbanos, se le ha dado valor a la perspectiva de género y a la voz de las mujeres.

Diagnostiko partekatua



Herritarren Foroa

Herritarren Foroko saiorako, eta aurkezpenean aipatutako gaien inguruan hausnartzeko eskatuz, lanketa nola egin azaldu da.

- **Taldeka diagnostikatu:** Soralezeko bost espazio publiko aukeratzeko eskatu zaie. Lan horretan laguntzeko mahai bakoitzean udalerriko planua bat eta bost diagnostiko fitxa dituzte.
- **Diagnostikoa partekatu:** talde bakoitzak aukeratu dituen lekuei buruzko hausnarketak adierazteko tartea izan du.



Parte-hartzaileak lau mahaitan banatu dira, beti ere taldekako deliberazio bat baita jaso nahi dena, adostasuna duena:

- Ordezkaritza politikoa, mahai mistoa: emakumeak (4), gizonak (2).
- Emakumeak 1 (5)
- Emakumeak 2 (5)
- Gizonak (5)

Lekuak aipatzeko orduan, espazio publikoak izatea eskatu zaie parte-hartzaileei. Espazio publiko horiek herri, auzo edo etxadi mailakoak izan daitezke; eredugarriak, aukera lekuak edo hobekuntzak behar dituztenak.

Mahai bakoitzean bost fitxa banatu dira. Fitxetan jasoko den informazioa honakoa da:

- **Lekuaren izena**
- **Nork erabiltzen du batez ere espazio hau?**
Adinaren eta sexuaren arabera lekuaren erabiltzaile nagusiak zeintzuk diren jakin nahi da.
- **Zein dira espazio honetan egiten diren jarduerak?**
Jarduera batzuk eman dira aukeran, gehienez bost aukeratzeko eskatuz.
- **Nola baloratzen duzue espazioa ezaugarri hauen arabera?**
Ezaugarri zehatz batzuen araberrako balorazio bat eskatu da, -3-tik +3 puntura baloratzeko eskatuz.
- **Lekuari buruzko hiru hitz.**
Lekuaren karakterizazioa osatzen lagun dezaketen hitzak eskatu zaizkie.
- **Lekuari buruz beste ezer esan nahi?**
Azkenik, lekua zergatik aipatu den eta bertarako zer proposatzen den aipatzeko aukera eman da.

LEKUAREN IZENA: _____		TALDEA: Zenbat zaretze? <input type="checkbox"/> Emakume <input type="checkbox"/> Gizon <input type="checkbox"/> Ez binarioa	
★ NORK ERABILTZEN DU BATEZ ERE ESPAZIO HAU?		Emakume gehiago <input type="range"/> Gizon gehiago	
★ ZEIN DIRA ESPAZIO HONETAN EGITEN DIREN JARDUERAK? AUKERATU GEHIENEZ BOST			
<input type="checkbox"/> NATURAREN HARRERMANA <input type="checkbox"/> ATSEDENA <input type="checkbox"/> ZAINTZA <input type="checkbox"/> JARD. FISIKOAL. KIROLA <input type="checkbox"/> JOIASA <input type="checkbox"/> TXAKURRA PASEATZEA <input type="checkbox"/> TOPHETA ELKARBITZETA <input type="checkbox"/> JAIK. OSPAKIZUNAK <input type="checkbox"/> KALE JAN-EDINA, TERRAZAK <input type="checkbox"/> EROSKETA <input type="checkbox"/> TRAFIKO, APARKALEKUA			
★ NOLA BALORATZEN DUZUE ESPAZIOA EZAUGARRI HAUEN ARABERA? BALORATU (-3, -2, -1, 0, +1, +2, +3)			
<input type="checkbox"/> LASITASUNA <input type="checkbox"/> BIZITASUNA <input type="checkbox"/> EDERTASUNA <input type="checkbox"/> ATSEGINA UDINGOAN <input type="checkbox"/> ATSEGINA NEGUAN <input type="checkbox"/> ARGIZAPENA <input type="checkbox"/> GARBITASUNA <input type="checkbox"/> SEGURITASUNA <input type="checkbox"/> ERABILERA DRDUTEGIA			
★ LEKUARI BURUZKO HIRU HITZ: 1. _____ 2. _____ 3. _____	★ LEKUARI BURUZ BESTE EZER ESAN NAHI? _____		

Herritarren foroko emaitzak

TALDEAREN OSAKETA			LEKUA	ZEIN DIRA ESPAZIO HONETAN EGITEN DIREN JARDUERAK?					NOLA BALORATZEN DUZUE ESPAZIOA EZAUGARRI HAUEN ARABERA?								
Taldea	Em	Giz	Lekuaren izena	Jarduera 1	Jarduera 2	Jarduera 3	Jarduera 4	Jarduera 5	Lasaitasuna	Bizitasuna	Edertasuna	Atsegina udaran	Atsegina neguan	Argiztapena	Garbitasuna	Segurtasuna	Erabilera ordutegi
Emakumeak 1	5	0	Estaziño	Atsedena	Zaintza	Jolasa	Topaketa, elkarbizitza		2	3	2	3	0		2	2	3
Emakumeak 1	5	0	Kiroldegi gaina	Txakurra paseatzea	Topaketa, elkarbizitza	Jaiak, ospakizunak			3	1	0	3	2		0	-3	3
Emakumeak 1	5	0	Oleagako bidegurutzia	Zaintza	Trafikoa, aparkalekua											-3	
Emakumeak 1	5	0	Oinezko kaleak	Naturarekin harremana	Zaintza	Jolasa	Topaketa, elkarbizitza	Kale jan-edana, terrazak	3	3	3	3	3		3	3	3
Emakumeak 1	5	0	SAPA	Atsedena	Jard. fisikoa edo kirola	Jolasa	Topaketa, elkarbizitza	Jaiak, ospakizunak		2		3	-2			-2	3
Emakumeak 2	5	0	Estaziño	Naturarekin harremana	Atsedena	Zaintza	Jolasa	Topaketa, elkarbizitza	1	3	0	3	-2	1	-1	-2	1
Emakumeak 2	5	0	Iturburu pasealekua	Atsedena	Zaintza	Jolasa	Txakurra paseatzea	Topaketa, elkarbizitza	2	2	1	2	-2	2	-1	2	3
Emakumeak 2	5	0	Plaza Berria	Atsedena	Zaintza	Jolasa	Topaketa, elkarbizitza	Jaiak, ospakizunak	1	3	1	0	-3	3	-1	0	3
Emakumeak 2	5	0	SAPA	Atsedena	Zaintza	Jolasa	Topaketa, elkarbizitza	Jaiak, ospakizunak	3	3	3	3	3	3	3	3	3
Emakumeak 2	5	0	Osintzurako bidea	Naturarekin harremana	Atsedena	Zaintza	Jard. fisikoa edo kirola	Topaketa, elkarbizitza	3	1	2	3	2	2	1	0	3
Gizonak	0	5	Atxuri-Balategietan errepidea	Trafikoa, aparkalekua					-2	3	0	2	-2	2	0	-2	3
Gizonak	0	5	Iturburu pasealekua	Naturarekin harremana	Atsedena	Jolasa			3	-1	1	2	-2	-3	-2	3	3
Gizonak	0	5	Kiroldegi gaina	Jard. fisikoa edo kirola	Jolasa	Txakurra paseatzea	Jaiak, ospakizunak		2	1	1	2	-2	2	0	-1	2
Gizonak	0	5	SAPA			Jolasa	Topaketa, elkarbizitza	Jaiak, ospakizunak	2	2	1	2	2	3	3	0	2
Gizonak	0	5	Ur-Txorroak	Atsedena	Zaintza	Jolasa			2	-1	-3	-3	-3	2	1	0	1
Ordezkaritza politikoa	4	2	Frontoia	Jard. fisikoa edo kirola	Jolasa	Topaketa, elkarbizitza	Jaiak, ospakizunak	Trafikoa, aparkalekua	0	0	-2						

Ordezkar politikoak	4	2	Kiroldegi gaina	Jard. fisikoa edo kirola	Jolasa	Txakurra paseatzea	Topaketa, elkarbizitza	Jaiak, ospakizunak	2	-2	0	2	-2	3	0	1	1
Ordezkar politikoak	4	2	Plaza Zaharra	Zaintza	Topaketa, elkarbizitza	Jaiak, ospakizunak	Kale jan-edana, terrazak	Trafikoa, aparkalekua	0	3	2	3	-2	2	2	2	3
Ordezkar politikoak	4	2	SAPA	Atsedena	Jard. fisikoa edo kirola	Jolasa	Topaketa, elkarbizitza	Jaiak, ospakizunak	1	1	2	2	2	3	3	2	2
Ordezkar politikoak	4	2	Ur-Txorroak	Zaintza	Jolasa	Topaketa, elkarbizitza			0	2	-2	2	-1	1	1	2	2

(Ikusi aurrerago Diagnostiko partekatua emaitzak.)



Emakumeen Mahaia

Emakumeen Mahaia Zabaltzen-Sartu ekimenaren babespean antolatu zen. Emakume migratuak dira batipat jarduera honen hartzaile, kasu honetan magrebtar jatorrikoak. Hori dela eta, eta Ramadam garaia hastear zenez, aurkezpen eta diagnostiko saioa egun berean egin zen.

Aurkezpenaren ondoren, Herritarren Fororako prestatuko fitxak bete zituzten, bi taldetan banatuta.

Aipagarria da **komun publikoei** buruzko balorazio kaskarra, ezaugarriak hitzez aipatzeko esatean *beldurra* eta *iluntasuna* esan dituztelarik.

Aldiz, **Osintxuko bidea** modu positiboan baloratu dute, topagune eta aukera leku gisa, baina ekipamenduen beharra aipatu da batipat. **Estaziño**-rekin ere antzera gertatzen da: asko erabiltzen duten lekua izanik, baditu zenbait gabezia eta hobetu beharrekoak, adibidez irisgarritasuna eta segurtasuna.

Hona aipatu zituzten lekuak eta hauen ezaugarri nagusiak taulan laburbilduta:

TALDEAREN OSAKETA			LEKUA	ZEIN DIRA ESPAZIO HONETAN EGITEN DIREN JARDUERAK?					NOLA BALORATZEN DUZUE ESPAZIOA EZAUGARRI HAUEN ARABERA?								
Taldea	Ema	Giz	Lekuaren izena	Jarduera 1	Jarduera 2	Jarduera 3	Jarduera 4	Jarduera 5	Lasaitasuna	Bizitasuna	Edertasuna	Atsegina udaran	Atsegina neguan	Argiztapena	Garbitasuna	Segurtasuna	Erabilera ordutegi
Emakumeak	6	0	Komun Publikoak	Zaintza					-3	-3	-3	-3	-3	-3	-3	-3	-3
Emakumeak	6	0	Elizpea	Zaintza					0	1	0	0	-3	2	-2	0	3
Emakumeak	5	0	Estaziño	Atsedena	Zaintza	Jolasa	Topaketa, elkarbizitza	Jaiak, ospakizunak	2	3	1	-2	-3	0	2	1	2
Emakumeak	5	0	Osintxurako bidea	Naturarekin harremana	Atsedena	Jarduera fisikoa	Txakurra paseatzea	Topaketa, elkarbizitza	2	0		2	2	0	1	-2	

Soraluzen Denon Kaleak

Soraluzeko espazio publikoiei buruzko diagnostikoa osatzeko galdetegia.

Cuestionario para completar el diagnóstico sobre los espacios públicos de Soraluze.

mvivesurbieta@gmail.com Aldatu kontua

Partekatu gabeak



Datozen urteotan aldaketa urbanistiko garrantzitsuak aurreikusten dira Soraluzen. Hori dela eta, udalerriko espazio publikoien sarearen eta espazioaren antolaketaren diagnostikoa egin nahi du udalak, bi giltzarri kontuan izanik: espazio publikoa topaketarako baliabide gisa ulertzea batetik, eta genero-ikuspegia txertatzea bestetik, eraldaketek herritar guztien behar eta desioak kontuan har ditzaten.

Galdetegi honen bitartez Soraluzeko leku bati buruzko balorazio pertsonala eskatuko dizugu. Nahi beste galdetegi bete ditzakezu, leku bakoitzeko bat.

Galdetegia betetzeko epea: martxoak 25-apirilak 15

En los próximos años se prevén importantes cambios urbanísticos en Soraluze. Por ello, el Ayuntamiento quiere realizar un diagnóstico de la red de espacios públicos del municipio y de la organización del espacio, teniendo en cuenta dos claves: la concepción del espacio público como recurso de encuentro; por un lado, y la incorporación de la perspectiva de género, por otro, para que las transformaciones tengan en cuenta las necesidades y deseos de toda la ciudadanía.

Mediante este cuestionario te pediremos una valoración personal de un lugar de Soraluze. Puedes rellenar tantos cuestionarios como quieras, uno por cada sitio.

Plazo de cumplimentación: 25 de marzo-15 de abril

Galdetegia zein hizkuntzatan bete nahi duzu?

¿En qué idioma quieres rellenar la encuesta?

Euskaraz

En castellano

Herritarren galdetegia

Herritarren Foroaren ondoren, eta bertaratzeko aukerarik izan ez zutenek ere parte-hartzeko aukera izan zezaten, galdetegi digitala jarri zen abian.


Herritarren Fororako prestatu zen fitxaren ereduaren arabera egin da galdetegi digitala, galdera berdinekin. Aipagarria den desberdintasun bakarra bakarka betetzeko aukera da, taldekako deliberaziorik gabe.

28 erantzun					
22 emakume (%79)				6 gizon (%21)	
16-29 (3)	30-44 (11)	45-64 (5)	+65 (3)	30-44 (4)	45-64 (2)
Bai (1)	Desgaitasunik ez (21)			Bai (1)	Ez (4)
Zaintzapean norbait bai (12)		Ez (10)		Bai (3)	Ez (3)


Erantzun gehienak emakumeenak dira (%79), zehazki 30-44 urte bitartekoenak, gehiengoak ez du desgaitasunik eta erdiak zaintzapean norbait du.



Leku horietan ze jarduera egiten diren galdetzean aipatuena **Topaketa, elkarbizitza, Atsedena** eta **Jolasa** izan dira:




Azkenik, lekuen ezaugarriak puntuatzeko eskatzean, balorazio altuenak lortu dituztenak **Lasaitasuna, Erabilera ordutegia** eta **Bizitasuna** izan dira. Puntuazio baxuenak berriz, **Atsegina neguan** eta **Garbitasuna**.



(Eranskinetan jaso dira galdetegiko emaitza guztiak.)

Laburpen gisa...



LEKUAREN
IZENA:

Estaziño

TALDEAK: **Herritarren Foroa + Galdetegia**

Zenbat
zarete?

17

Emakume

1

Gizon

Ez binarioa

★ NORK ERABILTZEN DU BATEZ ERE ESPAZIO HAU?

Ha

HAURREK

N

NERABEEK

G

GAZTEEK

He

HELDUEK

A

ADINEKOEK



★ ZEIN DIRA ESPAZIO HONETAN EGITEN DIREN JARDUERAK? AUKERATU GEHIENEZ BOST



NATURAREKIN
HARREMANA



ATSEDENA



ZAINTZA



JARD. FISIKOA,
KIROLA



JOLASA



TXAKURRA
PASEATZEA



TOPAKETA,
ELKARBIZITZA



JAIK,
OSPAKIZUNAK



KALE JAN-EDANA,
TERRAZAK



EROSKETAK



TRAFIKOA,
APARKALEKUA

★ NOLA BALORATZEN DUZUE ESPAZIOA EZAUGARRI HAUEN ARABERA? BALORATU (-3, -2, -1, 0, +1, +2, +3)



LASAITASUNA



BIZITASUNA



EDERTASUNA



ATSEGINA
UDARAN



ATSEGINA
NEGUAN



ARGIZTAPENA



GARBITASUNA



SEGURTASUNA



ERABILERA
ORDUTEGIA

★ LEKUARI BURUZ BESTE EZER ESAN NAHI?

- **Argiztapenean gabeziak:** Iluntzean, dagoen argiztapena ez da nahikoa.
- **Trafikoak eragindako segurtasun falta:** Ikastetxera sarbidea ematen duen gunea izanik, arrisku honek eragin handia du haur, nerabe eta hauen zaintzaileengan.
- **Ekipamenduan gabeziak:** iturri baten beharra aipatu da, baita parkerako estalkia ere.
- **Zaintzarako espazioa:** Emakumeek aipatu dute batez ere. Eskolaren gertutasunak eta jolas-gune ezberdinek multzo garrantzitsua osatzen dute zaintzaile eta haurrentzat.
- **Irisgarritasun gabeziak:** jolas-parkera sarbidea ez da irisgarria.
- **Mantentze eta garbiketa falta.**

LEKUAREN
IZENA:

SAPA

TALDEAK: **Herritarren Foroa + Galdetegia**

Zenbat
zarete?

14

Emakume

8

Gizon

Ez binarioa

★ **NORK ERABILTZEN DU BATEZ ERE ESPAZIO HAU?**

Ha

HAURREK

N

NERABEEK

G

GAZTEEK

He

HELDUEK

A

ADINEKOEK



★ **ZEIN DIRA ESPAZIO HONETAN EGITEN DIREN JARDUERAK? AUKERATU GEHIENEZ BOST**



NATURAREKIN
HARREMANA



ATSEDENA



ZAINZA



JARD. FISIKOA,
KIROLA



JOLASA



TXAKURRA
PASEATZEA



TOPAKETA,
ELKARBIZITZA



JAIK,
OSPAKIZUNAK



KALE JAN-EDANA,
TERRAZAK



EROSKETAK



TRAFIKOA,
APARKALEKUA

★ **NOLA BALORATZEN DUZUE ESPAZIOA EZAUGARRI HAUEN ARABERA? BALORATU (-3, -2, -1, 0, +1, +2, +3)**



LASAITASUNA



BIZITASUNA



EDERTASUNA



ATSEGINA
UDARAN



ATSEGINA
NEGUAN



ARGIZTAPENA



GARBITASUNA



SEGURTASUNA



ERABILERA
ORDUTEGIA

★ **LEKUARI BURUZ BESTE EZER ESAN NAHI?**

- **Eguraldiak eragindako fenomenoak kontuan hartu:** Neguan leku hotza izango da, udan beroa. Aterpe handia, erabilera asko posible egingo dituen.
- **Erabileren aldiberekotasuna ahalbidetu:** Espazioaren azalera jarduera ezberdinak aldi berean gertatzea ahalbidetzen du. Altzariak erabiliz lor daiteke, beharrezkoa denean mugitu daitezke.
- **Modu egokian ekipatu:** espazioa ekipatu beharra dago, erabilera onak eta anitzak sustatzeko (komunak, eserleku mota ezberdinak, jolaserako eta jarduera fisikorako elementuak...)
- **Irisgarritasuna bermatu:** Sarbidea errazteko zubi berriaren obrak lagunduko du.
- **Etorkizunerako aukerak:** Espazio honi jarraipena eman, eraikin nagusia ere elkartzuz (armagintzako museo bat, bilera gelak, estudioak, liburutegia, kultur etxea...)

LEKUAREN
IZENA:

Osintxu-bidea

TALDEAK: **Emakumeen Mahaia + Herritarren Foroa + Galdetegia**

Zenbat
zarete?

12

Emakume

Gizon

Ez binarioa

★ **NORK ERABILTZEN DU BATEZ ERE ESPAZIO HAU?**

Ha

HAURREK

N

NERABEEK

G

GAZTEEK

He

HELDUEK

A

ADINEKOEK



★ **ZEIN DIRA ESPAZIO HONETAN EGITEN DIREN JARDUERAK? AUKERATU GEHIENEZ BOST**



NATURAREKIN
HARREMANA



ATSEDENA



ZAINZA



JARD. FISIKOA,
KIROLA



JOLASA



TXAKURRA
PASEATZEA



TOPAKETA,
ELKARBIZITZA



JAIK,
OSPAKIZUNAK



KALE JAN-EDANA,
TERRAZAK



EROSKETAK



TRAFIKOA,
APARKALEKUA

★ **NOLA BALORATZEN DUZUE ESPAZIOA EZAUGARRI HAUEN ARABERA? BALORATU (-3, -2, -1, 0, +1, +2, +3)**



LASAITASUNA



BIZITASUNA



EDERTASUNA



ATSEGINA
UDARAN



ATSEGINA
NEGUAN



ARGIZTAPENA



GARBITASUNA



SEGURTASUNA



ERABILERA
ORDUTEGIA

★ **LEKUARI BURUZ BESTE EZER ESAN NAHI?**

- **Irisgarritasun maila** hobetu beharko litzateke, Inazibarrera.
- **Oinezkoen lehenetsi** beharko lirateke, bizikleten eta patineteen gainetik.
- **Ibilbidea hobeto ekipatu** beharko litzateke: komunak, iturriak, zakarrontziak, eserlekuak... Horretaz gain, barbakoak, parke biosasungarria eta bizikletak garbitzeko gune bat ere proposatu dira.
- **Txakurrekin arazoa** bate zere herrigunetik gertu dagoen zonaldean: txakur-kakaz gain, uhalik gabe ibiltzen dira.

LEKUAREN
IZENA:

Erregetxe

TALDEAK: **Galdetegia**

Zenbat
zarete?

1

Emakume

2

Gizon

Ez binarioa

★ NORK ERABILTZEN DU BATEZ ERE ESPAZIO HAU?

Ha

HAURREK

N

NERABEEK

G

GAZTEEK

He

HELDUEK

A

ADINEKOEK



★ ZEIN DIRA ESPAZIO HONETAN EGITEN DIREN JARDUERAK? AUKERATU GEHIENEZ BOST



NATURAREKIN
HARREMANA



ATSEDENA



ZAINZA



JARD. FISIKOA,
KIROLA



JOLASA



TXAKURRA
PASEATZEA



TOPAKETA,
ELKARBIZITZA



JAIK,
OSPAKIZUNAK



KALE JAN-EDANA,
TERRAZAK



EROSKETAK



TRAFIKOA,
APARKALEKUA

★ NOLA BALORATZEN DUZUE ESPAZIOA EZAUGARRI HAUEN ARABERA? BALORATU (-3, -2, -1, 0, +1, +2, +3)



LASAITASUNA



BIZITASUNA



EDERTASUNA



ATSEGINA
UDARAN



ATSEGINA
NEGUAN



ARGIZTAPENA



GARBITASUNA



SEGURTASUNA



ERABILERA
ORDUTEGIA

★ LEKUARI BURUZ BESTE EZER ESAN NAHI?

- **Potentzial handiko espazioa:** aparkaleku izatetik plaza izatera pasatzeak aukerak eskainiko lituzke (kultura, aisialdia, baserritarren azoka...). Herriko bihotzari bitzta emango lioke espazio hau oinezkoentzat izateak. Lurpeko aparkalekutara edo herriaren kanpoaldean dauden aparkalekuetara bideratu autoak.

LEKUAREN
IZENA:

Frontoia

TALDEAK: **Herritarren Foroa + Galdetegia**

Zenbat
zarete?

6

Emakume

2

Gizon

Ez binarioa

★ NORK ERABILTZEN DU BATEZ ERE ESPAZIO HAU?

Ha

HAURREK

N

NERABEEK

G

GAZTEEK

He

HELDUEK

A

ADINEKOEK



★ ZEIN DIRA ESPAZIO HONETAN EGITEN DIREN JARDUERAK? AUKERATU GEHIENEZ BOST



NATURAREKIN
HARREMANA



ATSEDENA



ZAINZA



JARD. FISIKOA,
KIROLA



JOLASA



TXAKURRA
PASEATZEA



TOPAKETA,
ELKARBIZITZA



JAIK,
OSPAKIZUNAK



KALE JAN-EDANA,
TERRAZAK



EROSKETAK



TRAFIKOA,
APARKALEKUA

★ NOLA BALORATZEN DUZUE ESPAZIOA EZAUGARRI HAUEN ARABERA? BALORATU (-3, -2, -1, 0, +1, +2, +3)



LASAITASUNA



BIZITASUNA



EDERTASUNA



ATSEGINA
UDARAN



ATSEGINA
NEGUAN



ARGIZTAPENA



GARBITASUNA



SEGURTASUNA



ERABILERA
ORDUTEGIA

★ LEKUARI BURUZ BESTE EZER ESAN NAHI?

- **Aparkalekuak:** Aparkatzeko aukera kentzea aipatu da, eskolako erabilera oztopatzeaz gain, sortu ditzakeen arrisku egoerengatik.
- **Garbiketa eta txukuntasun falta:** Zakarrontziak ez omen dira behar beste hustutzen, eta frontoiko pintadek ez dute itxura ona ematen. Landaretzaren zainketak ere ez dira behar bestekoak.

LEKUAREN
IZENA:

Kiroldegi gaina

TALDEAK: **Herritarren Foroa**

Zenbat
zarete?

9

Emakume

7

Gizon

Ez binarioa

★ NORK ERABILTZEN DU BATEZ ERE ESPAZIO HAU?

Ha

HAURREK

N

NERABEEK

G

GAZTEEK

He

HELDUEK

A

ADINEKOEK



★ ZEIN DIRA ESPAZIO HONETAN EGITEN DIREN JARDUERAK? AUKERATU GEHIENEZ BOST



NATURAREKIN
HARREMANA



ATSEDENA



ZAINZA



JARD. FISIKOA,
KIROLA



JOLASA



TXAKURRA
PASEATZEA



TOPAKETA,
ELKARBIZITZA



JAIK,
OSPAKIZUNAK



KALE JAN-EDANA,
TERRAZAK



EROSKETAK



TRAFIKOA,
APARKALEKUA

★ NOLA BALORATZEN DUZUE ESPAZIOA EZAUGARRI HAUEN ARABERA? BALORATU (-3, -2, -1, 0, +1, +2, +3)



LASAITASUNA



BIZITASUNA



EDERTASUNA



ATSEGINA
UDARAN



ATSEGINA
NEGUAN



ARGIZTAPENA



GARBITASUNA



SEGURTASUNA



ERABILERA
ORDUTEGIA

★ LEKUARI BURUZ BESTE EZER ESAN NAHI?

- **Gazteen lekua.**
- **Zaintza naturalik gabeko lekua.**
- **Skate-parkak ez du ongi funtzionatzen (teknikoegia, zaindu gabea...).**
- **Argiztapen kaxkarra.**

LEKUAREN
IZENA:

Atxuri-Baltegieta-Errekalde

TALDEAK: **Herritarren Foroa + Galdetegia**

Zenbat
zarete?

1

Emakume

5

Gizon

Ez binarioa

★ NORK ERABILTZEN DU BATEZ ERE ESPAZIO HAU?

Ha

HAURREK

N

NERABEEK

G

GAZTEEK

He

HELDUEK

A

ADINEKOEK



★ ZEIN DIRA ESPAZIO HONETAN EGITEN DIREN JARDUERAK? AUKERATU GEHIENEZ BOST



NATURAREKIN
HARREMANA



ATSEDENA



ZAINZA



JARD. FISIKOA,
KIROLA



JOLASA



TXAKURRA
PASEATZEA



TOPAKETA,
ELKARBIZITZA



JAIK,
OSPAKIZUNAK



KALE JAN-EDANA,
TERRAZAK



EROSKETAK



TRAFIKOA,
APARKALEKUA

★ NOLA BALORATZEN DUZUE ESPAZIOA EZAUGARRI HAUEN ARABERA? BALORATU (-3, -2, -1, 0, +1, +2, +3)



LASAITASUNA



BIZITASUNA



EDERTASUNA



ATSEGINA
UDARAN



ATSEGINA
NEGUAN



ARGIZTAPENA



GARBITASUNA



SEGURTASUNA



ERABILERA
ORDUTEGIA

★ LEKUARI BURUZ BESTE EZER ESAN NAHI?

- **Trafikoak arriskua** sortzen du: ez da abiadura muga errespetatzen.
- Ohitura aldaketa beharrezkoa da herriguneko **trafikoak murrizteko**.
- **Utzikeria eta txukuntasun falta** antzematen da kale hauetan.
- **Argiztapen kaxkarra**.

LEKUAREN
IZENA:

Ezoziko parkea

TALDEAK: Emakumeen Mahaia + Herritarren Foroa + Galdetegia

Zenbat
zarete?

12

Emakume

Gizon

Ez binarioa

★ NORK ERABILTZEN DU BATEZ ERE ESPAZIO HAU?

Ha

HAURREK

N

NERABEEK

G

GAZTEEK

He

HELDUEK

A

ADINEKOEK



★ ZEIN DIRA ESPAZIO HONETAN EGITEN DIREN JARDUERAK? AUKERATU GEHIENEZ BOST



NATURAREKIN
HARREMANA



ATSEDENA



ZAINZA



JARD. FISIKOA,
KIROLA



JOLASA



TXAKURRA
PASEATZEA



TOPAKETA,
ELKARBIZITZA



JAIK,
OSPAKIZUNAK



KALE JAN-EDANA,
TERRAZAK



EROSKETAK



TRAFIKOA,
APARKALEKUA

★ NOLA BALORATZEN DUZUE ESPAZIOA EZAUGARRI HAUEN ARABERA? BALORATU (-3, -2, -1, 0, +1, +2, +3)



LASAITASUNA



BIZITASUNA



EDERTASUNA



ATSEGINA
UDARAN



ATSEGINA
NEGUAN



ARGIZTAPENA



GARBITASUNA



SEGURTASUNA



ERABILERA
ORDUTEGIA

★ LEKUARI BURUZ BESTE EZER ESAN NAHI?

- Leku lasaia, topaketetarako egokia.
- Jolas-eremuak mantentze-lan gehiago behar du.
- Txakur jabeen aldetik ardurarik eza.

LEKUAREN
IZENA:

Iturburu pasealekua

TALDEAK: **Herritarren Foroa**

Zenbat
zarete?

5

Emakume

5

Gizon

Ez binarioa

★ NORK ERABILTZEN DU BATEZ ERE ESPAZIO HAU?

Ha

HAURREK

N

NERABEEK

G

GAZTEEK

He

HELDUEK

A

ADINEKOEK



★ ZEIN DIRA ESPAZIO HONETAN EGITEN DIREN JARDUERAK? AUKERATU GEHIENEZ BOST



NATURAREKIN
HARREMANA



ATSEDENA



ZAINZA



JARD. FISIKOA,
KIROLA



JOLASA



TXAKURRA
PASEATZEA



TOPAKETA,
ELKARBIZITZA



JAIK,
OSPAKIZUNAK



KALE JAN-EDANA,
TERRAZAK



EROSKETAK



TRAFIKOA,
APARKALEKUA

★ NOLA BALORATZEN DUZUE ESPAZIOA EZAUGARRI HAUEN ARABERA? BALORATU (-3, -2, -1, 0, +1, +2, +3)



LASAITASUNA



BIZITASUNA



EDERTASUNA



ATSEGINA
UDARAN



ATSEGINA
NEGUAN



ARGIZTAPENA



GARBITASUNA



SEGURTASUNA



ERABILERA
ORDUTEGIA

★ LEKUARI BURUZ BESTE EZER ESAN NAHI?

- **Ibaiertzaren bizitasuna** berreskurartzeko ibilbide jarraiak osatzea aukera ona.
- **Material gogorregiak** ditu egungo zatiak, goxatzeko aukera planteatzen da (egurra).
- **Topaleku gehiago** jartzea proposatzen da, eserleku solteak jarri beharrean.
- **Faseka egin daitekeen proiektua**, etorkizunera begira.

LEKUAREN
IZENA:

Ur-txorrotak

TALDEAK: **Herritarren Foroa + Galdetegia**

Zenbat
zarete?

5

Emakume

2

Gizon

Ez binarioa

★ **NORK ERABILTZEN DU BATEZ ERE ESPAZIO HAU?**

Ha

HAURREK

N

NERABEEK

G

GAZTEEK

He

HELDUEK

A

ADINEKOEK



★ **ZEIN DIRA ESPAZIO HONETAN EGITEN DIREN JARDUERAK? AUKERATU GEHIENEZ BOST**



NATURAREKIN
HARREMANA



ATSEDENA



ZAINZA



JARD. FISIKOA,
KIROLA



JOLASA



TXAKURRA
PASEATZEA



TOPAKETA,
ELKARBIZITZA



JAIK,
OSPAKIZUNAK



KALE JAN-EDANA,
TERRAZAK



EROSKETAK



TRAFIKOA,
APARKALEKUA

★ **NOLA BALORATZEN DUZUE ESPAZIOA EZAUGARRI HAUEN ARABERA? BALORATU (-3, -2, -1, 0, +1, +2, +3)**



LASAITASUNA



BIZITASUNA



EDERTASUNA



ATSEGINA
UDARAN



ATSEGINA
NEGUAN



ARGIZTAPENA



GARBITASUNA



SEGURTASUNA



ERABILERA
ORDUTEGIA

★ **LEKUARI BURUZ BESTE EZER ESAN NAHI?**

- **Udan:** Ur-txorrotak oso ondo daude, baina leku eguzkitsua denez, itzala jartzea eskatzen da.
- **Neguan:** Leku eguzkitsua denez, neguan egonleku egokia izan daiteke, hobeto ekipatuz gero.
- **Landaretza:** Elementu begetalak falta dira ingurune guztian.
- **Lurra latzegia** da oinutsik ibiltzeko.

LEKUAREN
IZENA:

Zeleta etxetaldea

TALDEAK: **Galdetegia**

Zenbat
zarete?

2

Emakume



Gizon



Ez binarioa

★ **NORK ERABILTZEN DU BATEZ ERE ESPAZIO HAU?**

Ha

HAURREK

N

NERABEEK

G

GAZTEEK

He

HELDUEK

A

ADINEKOEK



★ **ZEIN DIRA ESPAZIO HONETAN EGITEN DIREN JARDUERAK? AUKERATU GEHIENEZ BOST**



NATURAREKIN
HARREMANA



ATSEDENA



ZAINZA



JARD. FISIKOA,
KIROLA



JOLASA



TXAKURRA
PASEATZEA



TOPAKETA,
ELKARBIZITZA



JAIK,
OSPAKIZUNAK



KALE JAN-EDANA,
TERRAZAK



EROSKETAK



TRAFIKOA,
APARKALEKUA

★ **NOLA BALORATZEN DUZUE ESPAZIOA EZAUGARRI HAUEN ARABERA? BALORATU (-3, -2, -1, 0, +1, +2, +3)**



LASAITASUNA



BIZITASUNA



EDERTASUNA



ATSEGINA
UDARAN



ATSEGINA
NEGUAN



ARGIZTAPENA



GARBITASUNA



SEGURTASUNA



ERABILERA
ORDUTEGIA

★ **LEKUARI BURUZ BESTE EZER ESAN NAHI?**

- **Kokapenak zailtasunak eragiten dizkie oinezkoiei, adibidez, erosketa hartuta aldapan gora joateko.**
- Ibilgailuak **aparkatzeko zailtasunak** areagotzen ari dira.

LEKUAREN
IZENA:

Plaza Zaharra

TALDEAK: **Herritarren Foroa + Galdetegia**

Zenbat
zarete?

5

Emakume

2

Gizon

Ez binarioa

★ NORK ERABILTZEN DU BATEZ ERE ESPAZIO HAU?

Ha

HAURREK

N

NERABEEK

G

GAZTEEK

He

HELDUEK

A

ADINEKOEK



★ ZEIN DIRA ESPAZIO HONETAN EGITEN DIREN JARDUERAK? AUKERATU GEHIENEZ BOST



NATURAREKIN
HARREMANA



ATSEDENA



ZAINZA



JARD. FISIKOA,
KIROLA



JOLASA



TXAKURRA
PASEATZEA



TOPAKETA,
ELKARBIZITZA



JAIK,
OSPAKIZUNAK



KALE JAN-EDANA,
TERRAZAK



EROSKETAK



TRAFIKOA,
APARKALEKUA

★ NOLA BALORATZEN DUZUE ESPAZIOA EZAUGARRI HAUEN ARABERA? BALORATU (-3, -2, -1, 0, +1, +2, +3)



LASAITASUNA



BIZITASUNA



EDERTASUNA



ATSEGINA
UDARAN



ATSEGINA
NEGUAN



ARGIZTAPENA



GARBITASUNA



SEGURTASUNA



ERABILERA
ORDUTEGIA

★ LEKUARI BURUZ BESTE EZER ESAN NAHI?

- **Karparen ordezeko irtenbide bat pentsatzea.** Negua pasatzea errazten duen arren, ez da estetikoa.
- **Trafikoa:** goizez trafikoari irekita, arratsalde ez. Nahasia da, batipat oporraldietan, haurrentzat.
- **Baloia erabilerarekin** gatazkak sortzen dira.
- **Terrazen gehiegizko okupazioak** ere gatazkak sortzen ditu.



Haur eta nerabeen galdetegia

Haur eta nerabeen ahotsa jasotzea ezinbestekoa izan da prozesuan zehar. Haurrek zein nerabeek Kontseilu bana martxan dutela baliatuz, beraiek batera galdetegia diseinatu zen.

Galdetegiak bi atal nagusi ditu:

- Soraluzen aire librean edo kanpoan dauden leku onenei buruzko taldekako balorazioa.
- SAPAko aterpe berriari buruzko balorazioa, nahi edo espero dutenarekiko.

SORALUZeko UDALA #DenonKaleak Haurren Kontseilua Nerabeen Kontseilua

Ikastetxea: Gela:

Zenbat zarete taldean? NESKAK MUTILAK BESTE BAT

Soraluzen "aire librean" edo kanpoan dauden leku onenak, zuen ikuspegitik								
Adostu taldean: zein dira zuzentzat 4 leku onenak?	Adostu taldean: zenbat denbora pasatzen duzue leku bakoitzean? Gutxi-Nahiko-Asko	Adostu taldean: zenbat puntu ematen diozue leku bakoitzari? 0, 1, 2 edo 3				Adostu taldean: zein 3 hitz erabiliko zenituzkete, leku bakoitzaren ezaugarriak edo berezitasunak adierazteko?		
		Lagun askorekin elkartzeko	Lagun gutxi batzurekin elkartzeko	Jolasteko, kirola egiteko	Eguraldi txarrerako	1. hitza	2. hitza	3. hitza
1								
2								
3								
4								

SAPAKo aterpe berriko obrak ikasturtea amaitu baino lehen amaitzea espero da. Zer espero edo nahi zenukete?

SAPAKo aterpe berria	Zenbat denbora nahi zenukete pasa bertan? Gutxi-Nahiko-Asko	Zenbat puntu nahi zenukete izatea SAPAKo aterpeak? 0, 1, 2 edo 3 Ezin da 3 puntu eman zutabe guztietan!	Zein 3 hitz erabiliko zenituzkete SAPAKo aterpearentzat nahi dituzuen ezaugarri edo berezitasunak adierazteko?

Genero-ikuspegia txertatuz Soraluzeko Espazio Publikoen Diagnostikoa eta Berrantolaketa-Plana

Balorazioa ere hiru atal nagusitan banatzen da:

- Leku bakoitzean pasatzen duten denbora (gutxi-nahiko-asko).
- Leku bakoitzaren puntuazioa (0-tik 3-ra) honako ezaugarriekiko:
 - Lagun askorekin elkartzeko.
 - Lagun gutxi batzurekin elkartzeko.
 - Jolasteko, kirola egiteko.
 - Eguraldi txarrerako
- Leku bakoitzaren ezaugarriak edo berezitasunak 3 hitzetan.


Galdetegiak sexu bereko lauzpabost laguneko taldeetan betetzeko eskatu zitzairen.

Emaitzak

61 galdetegi jaso dira, beraz, beste horrenbeste taldek parte hartu dute. Talde bakoitzaren osaketaz galdetu zenez, eta akatsak-akats, parte-hartzaileen sexuarekiko eta ikasketa mailarekiko banaketa honakoa izan da:

61 erantzun (203 gazte)									
104 neska (%51)				94 mutil (%46)				5 beste bat (%3)	
LH3 (8)	LH4 (8)	LH5 (9)	LH6 (8)	DBH1 (12)	DBH2 (9)	DBH3 (5)	DBH4 (3)		

Aipatu dituzten lekuei buruz, berriz, aipatuena **frontoia** izan da, ondoren **futbol zelaia** eta **ikastetxeko jolaslekua**. Lehen biak mutilek aipatu dituzte gehien.



Denboraren erabilerari buruz galdetzean, gehien aipatu dituzten lekuak dira denbora luzez erabiltzen dituztenak, hau da, frontoia, futbol zelaia, ikastetxeko jolaslekua eta Plaza Berria.

Balorazioei buruz, modu positiboenean baloratu diren ezaugarriak **“Lagun askorekin egoteko”** eta **“Jolasteko, kirola egiteko”** izan dira. Negatiboak, berriz, **“Eguraldi txarrerako”** aukerak jaso ditu.

Hori dela eta, SAPA-k aukera berriak eskainiko dizkiela espero dute.

Espazio bakoitzari buruzko xehetasunak hurrengo laburpenean jaso dira. Erantzun taulak berriz, eranskinean daude.

Laburpen gisa...



SORALUZeko
UDALA


#DenonKaleak

Haurren Kontseilua
Nerabeen Kontseilua

Ikastetxea: **Plaentxi Herri Eskola + Soraluzeko BHI**

Mailak: **LH3 - DBH4**

Aipamen kopurua	LEKUA	Aipatu dute...	Zenbat denbora pasatzen duzue leku bakoitzean? Gutxi-Nahiko-Asko	Zenbat puntu ematen diozue leku bakoitzari? 0, 1, 2 edo 3			
				Lagun askorekin elkartzeko	Lagun gutxi batzuekin elkartzeko	Jolasteko, kirola egiteko	Eguraldi txarrerako
61	SAPA	Neska gehiagok	Nahiko	2,36	1,64	1,97	2,59
45	FRONTOIA	Mutil gehiagok	Asko	2,64	1,56	2,76	2,20
27	FUTBOL ZELAIA	Mutil gehiagok	Asko	2,70	1,26	2,93	1,00
23	IKASTETXEKO JOLASLEKUA	Neska gehiagok	Asko	2,78	1,83	2,78	2,22
18	PLAZA BERRIA	Neska gehiagok	Asko	2,39	2,17	1,11	0,67
16	SKATE PARK	Neska gehiagok	Nahiko	2,25	1,75	2,06	0,63
13	PLAZA ZAHARRA	Neska gehiagok	Nahiko	2,23	1,85	2,00	1,23
11	ATXURIKO PARKEA	Mutil gehiagok	Gutxi	2,00	2,09	1,82	0,73
11	ESTAZIÑO	Neska gehiagok	Nahiko	2,47	1,89	1,74	1,47
7	PASEOA	Neska gehiagok	Nahiko	1,71	1,86	1,43	0,00
5	UR-TXORROTAK	Neska gehiagok	Nahiko	2,13	1,73	1,53	0,67
5	ELIZPEA	Neska gehiagok	Gutxi	2,2	2	1,4	3



Proposamenak

Proposamenak lantzeko eta partekatzeko orduan zenbait faktore hartu dira kontuan:

- Espazio publikoen berrantolatze prozesu honekin zerikusi eta eragin zuzena izan ditzaketen espazioak.
- Etorkizun hurbilean Udalaren egitasmoekin bat egin dezaketen jarduketak.
- Genero-ikuspegitik esanguratsuak diren egitasmoak.
- Parte-hartzean zehar aipatu diren lekuak.

Beraz, eta herritarrekin azken saio batean partekatzeko eta lantzeko asmoarekin, bost proposamen prestatu dira:


1. **SAPA**
2. **Estaziño**
3. **Frontoi ingurua**
4. **Plaza Zaharra + Erregetxe + Ur-txorrotak**
5. **Trafikoa baretzeko aukerak**

Badira proposamenetan adierazi ez diren, baina esanguratsuak diran bestelako proposamenak ere. Horiek **prozesuaren sintesian** jaso dira.

SAPA



SAPA eraikinaren eraberritzeak Soroluzeko herrigunearen erabileran eragin handia izan dezake. Espazio estalien gabezia begibistakoa da eta diagnostiko saio eta elkarrizketetan asko aipatu da. Gune estali honek frontoitik eliza bitarteko eremuak edo Plaza Zaharreko zuhaitziak besteko azalera du.




Proposamena erabiltzeko buruz hausnartzeko ariketa gisa planteatu da:

- Zenbat aldebereko erabilera gerta daitezke espazio honetan?
- Zeintzuk lehenestea proposatzen duzue?
- Nola ekipatu beharko litzateke espazioa horretarako?

Irudietan, altzari moldakorren bitartez espazioa banatzea proposatu da, besteak beste honako jarduerak ahalbidetzeko:

- Ikuskizunak
- Azokak
- Herri-bazkariak
- Jolasak
- Kirol informala
- Topaguneak



Estaziño





Estaziño kalea eta inguruan dituen espazioak oso garrantzitsuak dira eguneroko bizitzaren ardatzetatik aztertuta: lehen hezkuntzako ikastetxera sarbidea, jolas-parkeak, autobus geralekua, herrigunera zein Zeleta auzora sarbideak... **Bidegurutze bat baino gehiago dela ezin da ukatu.** Hori dela eta, leku bizia izateaz gain gatazkatsua ere bada: trafikoak oinezkoen joan-etorri seguruak oztopatzen ditu eta zaintza gune garrantzitsua denez, haurren eta hauen zaintzaileen autonomian eragina du honek. Honetaz gain, irisgarritasun gabeziak ere badaude, adibidez, jolas-parke batetara iristeko, edo ikastetxera daraman igogailura iristeko, espaloia asko estutzen baita.

Landutako proposamenean esparru guztia **oinezkoen lehentasun eremu** bilakatu da: ibilgailuei espazio honetan gonbidatu gisa portatzea eskatuko zaie. Horretarako:

- Oinezko eremuko zoladurari jarraipena eman zaio, ibilgailuen ibilbidea gutxienekora mugatuz.
- Igogailuraino espaloia zabaldu da, ibilbide irisgarria ahalbidetuz.
- Jolas parkean elementu naturalak txertatu eta hauek erabili ibilgailuen bidearekiko hesi fisikoa sortzeko, ahal den heinean.
- Autobus geralekuaren ondoan eserleku gehiago jarri eta eskailerak berdegune batekin ordezkatu, oztoporik gabeko ibilbidea eginez.



Frontoi ingurua



Frontoia izan da gazteen galdetegian leku baloratuena. Frontoiak, institutu ondoan dagoen leku estalia izateaz gain, ondoan kirol-kantxa bat du maila berean. Haurreskola ere bertan dago, kanpo-espazio oso estu bat duena. Eliza da espazio hau eta Etxaburueta kalearen arteko transizio gunea, eskailera bitartez koten arteko desnibela gainditzea ahalbidetzen duena, gehiegizko malda duen aldapaz gain. Gaur egun asfaltatutako guneak aparkaleku gisa funtzionatzen du.

Proposamenak esparru hau **oinezko eremua** izatea jaso du.

- Etxaburueta kaletik gora, baimendutako ibilgailuak ezik, oinezko eremua izatea.
- Ibilbide nagusiak errespetatuz, ahal den azalera handiena berdatu eta karakterizatzea: jolaserako elementuak jartzea proposatu da, haurreskolako haurrentzat, alde batetik, eta nerabeei bestetik. Institutuko nerabeei kirol-kantxetaz gain jolaserako aukerak ematea da xede nagusia.
- Proposamen honek badu elizpearekin zerikusia: aterpe ederra eta Ondare sailak babestua izanik, ez da gehiegi erabiltzen. Ingurunea aktibatuz gero, elizpea ere espazio sistemaren parte bihur daiteke.



Plaza Zaharra + Erregetxe + Ur-txorrotak





Hiru espazio hauek, bakoitzak bere aldetik, garrantzi handia dute Soraluzeko herrigunean:

- **Plaza Zaharra**, herriguneko topagune nagusienetako bat da. Aterperik ez duenez, urritik maiztera karpa handi bat jarri ohi da, aterpea edukia ahal izateko.
- **Erregetxe**, maila bat gorago, aparkaleku erabilera du gaur egun.
- **Ur-txorroen parkea**, bi maila gorago, udaran uraz disfrutatzeko leku berria.

Udalak espazio hauen eraldaketarako dituen asmoak proposamen honetan jaso dira:

- **Plaza Zaharra ibaiarekin elkartu**, eraikin bat eraitsiz eta honen lekuan gradak eraikiz.
- **Erregetxe azpian espazio estali bat sortu**, aterpe gabeziari aurre egiteko eta plazaren erabilera aukerak areagotzeko.
- **Ur-txorroten parkea ekipatu**, itzalguneak jarriz eta egonleku gisa erabili ahal izateko eserleku anitzak jarriz.

Horretaz gain, proposamenean oinezko eremuak handitzea aurreikusi da, berdeguneak eta topaguneak gehituz.





Trafikoa baretzeko aukerak

Trafikoak erabat baldintzatzen du espazio publikoen funtzionamendua. Hori dela eta, etorkizuneko herria irudikatzerakoan ezinbestekoa da trafikoarekiko ikuspegia garbi izatea. Herriguneak oinezkoentzat izateak dituen onurak kontuan izanda, ibilgailuen presentzia eta hauen joan-etorriak mugatzea ezinbestekoa da. Herri bakoitzak bere bidea egin beharko du, bere epeekin eta irtenbideekin.

Soraluzeren kasuan, bi pauso marraztu dira:

- **Lehen pausoa** norabide bikoitzeko kale kopurua murriztea proposatu da, kale baretuekin edo norabide bakarrekoeekin ordezkatur.
- **Bigarren pausoa** HAPOn garapenak ahalbidetuko dituen proiektuak gauzatzea du baldintzatzaile nagusia: Olaldeko garapenak herrigunean dauden aparkaleku ugari kanpoaldera desplazatzea ahalbidetuko dezake.



Proposamenei ekarpenak

Herritarrekin proposamenak partekatzeke azken parte-hartze saio bat egin da. Saio horretara gonbidatu dira orain arte parte-hartu duten herritarrak, Emakume Mahaikoak eta Haur eta Nerabe Kontseiluak barne.

Prozesuari buruzko laburpenaren ondoren, bost proposamenak azaldu dira. Proposamenak aretoko hormetan jarri eta parte-hartzaileei beraien interesen arabera taldekatzea eskatu zaie. Haur, nerabe eta emakume migratuei talde propioa edo beste taldeetan sakabanatzeko aukera eman zaie. Azken hauek, hizkuntza oztopoak tarteko, lan talde berezia osatu dute. Haurrak eta nerabeak talde ezberdinetan sakabanatu dira.

Lanketa talde bakoitzak bere aldetik egin du. Talde batzuk leku bat baino gehiago aztertu dute. Saioaren azken tartean egindako hausnarketak partekatu dira. Ondoren laburbildu dira proposamen bakoitzari buruz egindako ekarpenak eta iruzkinak:

SAPA

A Taldea

- Jolaserak leku libre gisa ikusten dugu: dantzarako, bazkarietarako...
- Ibai-ertzean pasealekua ere izango du.
- Komunak jartzea beharrezkoa izango da.
- Eserlekuak ere jarri beharko dira, guztia jolaserako eremu libre gisa ez.
- Iturria eta gaur egun dagoen eserleku luzea ere hor daude.

B taldea

- Antzerako ideiak izan ditugu.
- Jolas-parkea jartzea proposatzen dugu txikieneztat eta kirol-kantxa haur handiagontzat.
- Azokarako lekua aurreikustea ondo legoke.
- Eserleku, iturri eta komuna beharrezkoak dira.





Estaziño

C taldea

- Ezinbestekoa da abiadura murrizteko estrategiak erabiltzea: errai zuzenak ekidin, sakanguneak, zoladuren testurak...
- Goiko eta beheko parkeak elkartzea gustatuko litzaiguke.
- Goiko parkea irisgarria izatea nahi genuke. Aukerak analizatu.

Frontoia

G taldea

- Aparkalekuan hondarra, belarra eta zuhaitzak jartzea proposatzen dugu, haur txikiek jolasteko.
- Hauen ondoan kolunpioak jartzea ere ondo legoke.
- Irakasleentzat eserlekuak jartzea komeni da.
- Ez dugu kotxerik nahi frontoi inguruan
- Frontoiko grafitiak kentzea proposatzen dugu.



D taldea

- Txikienentzat ondo ikusten dugu proposamena.
- Berdatzea ere positiboki baloratu dugu.
- Erdigunea kirol-kantxak okupatzen duenez, neska nerabe eta haurrentzat elementuak eta eremuak jartzea gustatuko litzaiguke, aukera bakarra ertzetan egotea izan ez dadin.
- Topaketak sustatzeko altzari ez arruntak jartzea gustatuko litzaiguke.
- Frontoi Arrosa aukera leku bat da, irisgarria ez den arren. Bizilagunen begibistan dago, agian horregatik ez du arrakastarik.
- Elizpea, egun ilunetan, oso leku iluna da. Argiztapena ona da.



Plaza Zaharra + Erregetxe + Ur-txorrotak

E taldea

- Hiru maila hauetaz gain ibai-ertza ere kontuan hartu behar da.
- Foru Aldundiko Ondare sailak zer dio eskailerak eta iturria kentzeari buruz?
- Proposamen hau gauzatzeak kostu ekologiko handia du, kontuan hartzea eskatu da.
- Erregetxe azpiko eremuko argiztapena zaindu beharko da.
- Erregetxe azpian komuna jartzea proposatzen da.
- Leku hau oso garrantzitsua da festetan bertan jartzen baitira barrakak: egiten den proiektuak kontuan har dezala.
- Ur-txorroten parkea osatu beharra dago: eserlekuak eta itzalguneak jarri.

G taldea

- Ur-txorrotetan txirrista bat jartzea nahi genuke.
- Aldapan mural bat pintatzea proposatzen dugu, ingurunea politagoa izan dadin.

Trafikoa baretzea

F taldea

- Lehen faseari buruz, frontoi ingurua oinezkoa izatea ondo ikusi da. Halere, kontuan hartu beharko dira jangela eta hileta zerbitzuen beharrak.
- Estaziño kalerako proposamena ere ondo ikusi da. Aparkalekuak kentzeak zalantzak sorrarazi ditu.
- Zubia-Etxaburueta norabide bakarrekoa izatea proposatu dute, igotzeko.
- Bigarren fasea ondo ikusi da. HAPOn garapenak zubi berri bat eraikitzea ahalbidetuko du eta horrela 500 m-tan moztuko da egungo norabide bakarrekoei kaleek eragindako ibilbidea.
- Txurrukeneko oinezko pasarelak ere erraztuko ditu ibilbideak: ibilgailua erabiltzea baino eraginkorragoa izan daiteke oinez mugitzea.

Gainera...

Ezinbestekoa da kalitatezko **komun publiko sare bat osatzea**. Kirolddegikoak, adibidez, badu erabilera kanpotik. Jubilatuen tabernako erabiltzeak ere, publikoa izanik, posible izan beharko luke. Proposatu diren kokaleku berriak:

- Estaziño
- Plaza Berria
- Frontoi ingurua
- Osintxu bidea (bidegorria)



Ondorio orokorrak

Ondorio eta proposamen espezifikoez gain, diru-laguntzak babestu duen proiektu honen kasu partikularretik oinarrituta, hainbat ondorio orokor atera dira, epe motzera zein laburrera **udal-plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia txertatzera** zabal daitezkeenak.

Hiru esparrutan antolatu dira ondorio orokor horiek:

Metodologia

Plangintza-tresnen eta proiektuen idazketa-prozesuei dagokienez:

- Hirigintza Saitetik Udaleko beste arloetako arduradunekin prozesua partekatzea komeni da. Berdintasun Saileko arduradunekin lanketa partekatu hori prozesuaren hasieran abiatu behar da, plangintza-tresnen kasuan Generoaren araberrako Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioak eskatzen duen bezala.

Diagnostikoei dagokionez:

- Informazioa generoaren araberran banakatzeaz gain, jarduketa-eremuetan (etxebizitza, garraioa, ekipamenduak...) generoaren araberrako desberdinkeriak bistaratzera eta neurtzera bideratuko da diagnostikoa, gainera datu horiek geografikoki ere banakatuz (auzoka adibidez).

Parte-hartze prozesuei dagokionez:

- Prozesuaren hasieran parte-hartzaileei proiektuak ezagutzera emateko saioak aurreikusi: diagnostikoak, baldintzatzaile nagusienak (araudizkoak, ekonomikoak, denborazkoak, hirigintza-tresna bakoitzaren jarduketa-esparruen ingurukoak...), jada hartuak dauden erabakiak... Horretarako, informazio espezifikoa sortzeko lanketak aurreikusi, edukiak zein formatuak hartzaileen gaitasunetara eta interesetara egokituz. Prozesu honetan zehar ikusi da herritarrak gai direla kontzeptu berriak barneratzeko eta aplikatzeko: hirigintzak beraiek egunero bizi dituzten esperientzietan duen eragina ulertu eta beraz, aldatzeko aukerak ematen dizkie.

Espazio publikoak

Espazio publikoen antolamenduari dagokionez, herritarrei kalitatezko espazio publikoetara irispidea bermatu behar zaio, hiru eskala desberdinetan:

- Udalerri mailan, herrigunean kokatutako espazio nagusi(eta)ra.
- Auzo mailan, auzo bakoitzak kalitatezko espazio publiko bat izan behar du.
- Etxadi mailan, etxebizitzekin harremanean egongo diren hurbileko espazio publiko seguru eta atseginen sare bat aurreikusi behar da.

Kokapenari dagokionez:

- Orokorrean, saihestu beharrekoak: kokapen periferikoak, “bazterrean” edo “atzekaldean” daudenak, trafikoaren edo jarduera kaltegarrien/desatseginen eraginpean daudenak, beste jarduera edo ekipamenduekin harremanik ez dutenak... (ikusi **Mugikortasuna** atala)
- Orokorrean, bultzatu beharrekoak: ekipamendu publikoen sarbideekin harreman zuzenean daudenak, oinezkoen ibilbide nagusienekin lotzen direnak, ingurune/elementu naturalekin harremanean daudenak...
- Garrantzi berezia eman behar zaio genero-ikuspegitik garrantzitsuak diren eremuei, besteak beste: pertsona zaurgarrienek (haurrek, adinekoek...) gehien erabiltzen dituzten ekipamenduen inguruko eremuei eta ibilbideei, eguneroko bizitzan ohikoenak diren jarduerari eta espazioei (zainketa-lanak, eguneroko erosketa...), etab.

Espazio publikoaren nolakotasunari eta ekipamenduari dagokionez:

- Espazio bakoitzak erabiltzaile anitzen beharrei erantzun behar die. Espazio biziak lortzeko bertako jarduera-proposamena ez da adin edo ekintza zehatz batetara mugatuko: hiri mailarako proposatu ohi den bezala jokatu da espazio publikoetan ere, erabilera nahasketa eta konplexutasuna sustatuz.
- Komun publikoak ezinbestekoak dira espazio publikoaren erabilera osoa eta egokia errazteko. Komunen diseinuan genero-ikuspegia txertatu da, segurtasuna, irisgarritasuna eta zainketa-lanak kontuan hartuz, besteak beste.
- Hiri-altzari eta ekipamendu horniketa eta instalakuntzan ere genero-ikuspegia txertatu da, aniztasuna, irisgarritasuna, erabilgarritasuna eta elkarbizitza kontuan hartuz, besteak beste.
- Urbanizazio-ordenantzen inguruko lanketa egin behar da, genero-ikuspegia txertatuz.

Espazio publikoaren inguruko eraikinek eragin handia dute honen izaeran eta ezaugarrietan. **Ingurune eraikiari** dagokionez:

- Behe-solairuek espazio publikoan eragin positiboa izan dezatela sustatu da, jarduera anitzak erraztuz eta genero-ikuspegia txertatuz. Adibidez, gardentasuna eta erabilera-ordutegia areagotuz.
- Etxebizitza eraikinek genero-ikuspegitik eragin positiboa izan dezakete diseinuaren arabera. Hori dela eta espazio publikoaren diseinuan etxebizitza eraikinekin duen harremana kontuan hartuko da, elkarrekintza positiboa sustatuz eta negatiboak ekidinez. Adibidez, balkoien bitartez espazioarekiko zaintza naturala ahalbidetuz.

Naturalizazioari dagokionez:

- Parkeez gain, espazio publikoetan zoru naturalak eta zuhaitzak aurreikusi behar dira, ugari eta askotarikoak.
- Berdeguneen eta lorategien mantentze-lanak bermatuko dira, inguruneak zainduta edukitzeko: segurtasun-pertzepzioa areagotzeko garrantzitsua da gai hau, eta plangintza mailan bada ere, eskala txikiko erabakiak aurreikusi behar dira.

Kaleak eta mugikortasuna

Irisgarritasunari dagokionez:

- Oinezko ibilbide nagusiak irisgarriak direla bermatuko da, araudiak ezarritako minimoak hobetuz.
- Ibilbideen osagarri diren elementuak jarri: eserlekuak, iturriak, aterpeak...

Mugikortasun-sareari dagokionez:

- Oinezko ibilbide nagusiak zehaztuko eta lehenetsiko dira, joan-etorrien abiapuntu eta helmuga garrantzitsuak ezartzean genero-ikuspegia txertatuz.
- Genero-ikuspegitik garrantzitsuak diren eremuak, besteak beste: pertsona zaurgarrienek (haurrek, adinekoek...) gehien erabiltzen dituzten ekipamenduak, eremuak eta ibilbideak, eguneroko bizitzan ohikoenak diren jarduerak eta espazioak (zainketa-lanak, eguneroko erosketa...), etab.
- Genero-ikuspegitik garrantzitsuak diren eremu eta puntu garrantzitsuetan kotxeen erabilera soilik beharrezkoak diren joan-etorrietara murrizteko disuasio-neurriak aurreikusi: aparkalekuen eskaintza gutxienera doitzuz, joan-etorriak motelduz, galtzadak estutuz...
- Ardatz nagusietan izan ezik, sarearen diseinuaren oinarritzko irizpidea izan behar du trafikoa murriztea eta bere abiadura baretzea.
- Olaldeako garapen berriak eta bertako aparkalekuak herriguneko trafikoaren murrizketan izango duen eraginaz baliatu, oinezko mugikortasuna bultzatzeko neurriak hartzeko: eskola-bideak indartu, oinezko ibilbideak seinaleztatu...

Garraio publikoari dagokionez:

- Autobus geralekuaren kokapen ezberdinetan eta diseinuan genero-ikuspegia kontuan hartu.

Aparkalekuen eskaintzari dagokionez

- Aparkalekuen eskaintzan eta kokapenean kontuan izan behar da erraz aparkatzeak trafikoa areagotzen duela.
- Aparkatutako kotxeek espazio publikoaren kalitatea kaltetzen dute, eta zenbait baldintzatan (kokapena, eremuaren tamaina), erasoei lotutako segurtasunaren pertzepzioari eragiten diote.

Berrantolaketa planaren sintesia

Soraluzeko espazio publikoen berrantolaketa planaren sintesia ondorengo bi planuetan jaso da.

Diagnostikoa

Alde batetik, espazio publikoei eragiten dieten aldagai esanguratsuenak adierazi dira:

- **Kale partekatuak:** oinezko eta ibilgailuen artean partekatzen diren kaleak, trafikoaren baretzea helburu dutenak.
- **Eraikin publikoak:** beren izaeragatik, inguruko espazio publikoen erabilera eragin zuzena dutenak.
- **Espazio publiko nagusiak:** herrigunearen erabilera esanguratsuenak direnak.
- **Auzo mailako topaguneak:** auzo edo etxadi mailan garrantzia duten espazioak.
- **Komun publikoak:** gaur egun daudenak.

Bestetik, parte-hartze saioetan aipatu diren lekuak jaso dira, proposamenetan ere aipatuko direnak.


Proposamenak

Proposamenetan ere bi atal nabaritu dira:

1. **Estrategiak:** espazio publiko segurua, irisgarria, eroso eta bizia lortzeko ezinbestekoak direnak eta prozesu osoan zehar ardatz izan direnak, beti ere genero-ikuspegitik abiatuz.
 - a. **Trafikoa baretzea,** kale partekatuen kopurua handituz.
 - b. **Oinezkotzea,** espazio publikoak herritarrentzat irabaziz.
 - c. **Loturak sortzea/hobetzea,** espazioen erabilera aukerak areagotuz.
 - d. **Berdatzea,** hiri-ekosistemaren biodibertsitatea handituz, eta espazio atseginagoak sortuz.
 - e. **Aktibatzea,** espazio publikoak bizitasuna izan dezaten bizitzarako ekipatuz.
2. **Proposamen zehatzak:** espazio publiko esanguratsuenetarako prestatu direnak.

Diagnostikoa

- 1 SAPA**
Herrian eraiki den espazio estali berria. Funtzio anitzetarako erabilgarria izatea espero da. Kolektibo edo talde bakoitzak erabilera ezberdinak aurreikusi ditu bertarako: jolasa, zaintza, azoka, herri-bazkaria, ikuskizunak, kirola...
- 2 Plaza Zaharra**
Herriguneko topagune nagusienetako bat da, ibaitik gertu dago, zuhaitzak ditu eta terrazek okupatzen dute zati bat. Aterperik ez duenez, urritik maiatzera karpa handi bat jarri ohi da bertan, gun e estalia edukia ahal izateko.
- 3 Erregetxe**
Plaza Zaharraren gainean kokatzen den erdiguneko espazio libre zabalena dela esan daiteke. Gaur egun aparkaleku erabilera du.
- 4 Ur-txorrotak**
Udaran haurrek erabiltzen duten espazio berria. Beroa egiten duenean itzalguneak falta dira, eta erabiltzaileen esanetan, baita iturri eta egonleku eroso eta erakargarriak ere.
- 5 Frontoia**
Nerabeen jolasgune nagusia izateaz gain aparkalekua ere bada kirol kantxa eta elizpearen arteko espazioa. Honek arrisku egoerak sortzeaz gain, jolaserako espazioa murrizten du.
- 6 Estaziño**
Estaziñon daude ikastetxera sarbidea, jolas-parkeak, autobus geralekua, herrigunera zein Zeleta auzora sarbidea... Leku bizia izateaz gain arriskugunea ere bada eta irisgarritasun arazoak ere baditu.
- 7 Iturburu pasealekua**
Ibaiertzeko pasealekua oso preziatua da, baina ez dago behar beste ekipatuta.
- 8 Osintxuko bidea**
Jarduera fisikorako eta paseatzeko erabiltzen den ibilbidea da, lehen trenbidea izandako hau.
- 9 Auzo mailako topaguneak**
Oro har, anitzak eta desberdinak dira. Komunean dutena ekipamendu minimoetan gabeziak dira: eserleku, iturri, aterpe, komun publiko...




Estrategiak

- Trafikoa baretu**
Herrigunean trafikoa baretua sustatu, oinezkoak lehenesteko eta trafikoa mugatzeko estrategiak gune bakoitzaren baldintzetara egokituz.
- Oinezkotzea**
Oinezko eremua lehenetsi, trafikoa debekatuz eta aparkalekuak kenduz.
- Lotura sortu / hobetu**
Espazioen arteko lotura berria sortu, edo dagoen lotura seguruagoa eta sendoagoa izan dadin aldaketak egin.
- Berdatu**
Espazioa berdatzea, lurzoru iragazkorren azalera areagotuz eta landaretza mota eta tamaina ezberdinak landatuz.
- Aktibatu**
Espazioak eskaintzen dituen aukerak zabaldu zainzarako, topaketetarako eta jolaserako ekipamenduak jarritz: hiri-altzariak, jolasak...
- Auzo mailako topaguneak ekipatu**
Auzo mailako espazioak ekipatzea eta aktibatzea proposatu da, auzo bakoitzaren identitateari eta beharrei erantzunez.
- Komun publiko berria**

Proposamen zehatzak

- 1 SAPA**
Elementu mugikorren bitartez espazioa banatzeko aukerak ahalbidetzea proposatu da, erabilera estatikoak eta dinamikoak aldi berean posible izan daitezten. Gutxieneko ekipamenduan komuna gehitzea gomendatzen da.
- 2 Estaziño**
Zaintzarako espazioa eta eskola bidea izanik trafikoa baretzeko neurriak hartu beharko lirateke. Horretaz gain, jolas-gunea zein autobus geltoki ingurua berdatzea eta atsedenerako eta zainzarako ekipatzea proposatu da.
- 3 Plaza + Erregetxe + Ur-txorrotak**
Herriko erdigunean dauden espazio hauen artean lotura berriak sortzea proposatu da: ibai-ertzetik ur-txorroten parkera, Plaza Zaharra Erregetxe azpiko esparru berriarekin osatuz eta aparkalekuari lekua kenduz.
- 4 Frontoia - Elizpea**
Oinezko eremu bilakatzeak aukera berriak ahalbidetuko ditu. Frontoia eta kirol-kantxaren osagarri izango diren jolas-lekuak eta egonlekuak jartzea proposatu da, haur eta nerabeei aukerak zabalduz. Elizpea eta Frontoia Larrosa espazio hauen osagarri bilaka daitezke.



Eranskinak

Planuak (A3)

Proposamen planuak labur.eus/SOR-P

Sintesi planuak labur.eus/SOR-S

Saioetarako prestatutako aurkezpenak

Aurkezpen saioa labur.eus/SOR1

Diagnostiko saioa labur.eus/SOR2

Lanketa saioa labur.eus/SOR4

Galdetegiak

Herritarren galdetegi fitxa labur.eus/SOR-GF1

Herritarren galdetegi online labur.eus/SOR-G

Haur eta nerabeen galdetegi labur.eus/SOR-GF2

Diagnostiko partekatua


Galdetegietako eta saioetako emaitzak labur.eus/SOR-E

Emaitzen mapa digitala labur.eus/SOR3

Parte-hartze txostena


Txostena labur.eus/SOR-ParteHartze

Planuak




A

Ikuskizuna + egonlekua




B

Patintzeko pista




C

Kantxa + Jolasa




D


Azoka





E


Zer gehiago?

















EGUNGO EGOERA




PROPOSAMENA




EGUNGO EGOERA 0

- KALE BARETUA
- NORABIDE BAKARRA
- NORABIDE BIKOITZA




LEHEN PAUSOA 1

- 1 EZOZI KALEA
- 2 ETXABURUETA KALEA - ZUBIA
- 3 FRONTOI KALEA
- 4 ESTAZIÑO



BIGARREN PAUSOA 2

- 5 OLALDEKO GARAPENA
- 6 ERREGETXE MUGATU



Diagnostikoa

1 SAPA
Herrian eraiki den espazio estali berria. Funtzio anitzetarako erabilgarria izatea espero da. Kolektibo edo talde bakoitzak erabilera ezberdinak aurreikusi ditu bertarako: jolasa, zaintza, azoka, herri-bazkaria, ikuskizunak, kirola...

2 Plaza Zaharra
Herriguneko topagune nagusienetako bat da, ibaitik gertu dago, zuhaitzak ditu eta terrazek okupatzen dute zati bat. Aterperik ez duenez, urritik maiatzera karpa handi bat jarri ohi da bertan, gune estalia edukia ahal izateko.

3 Erregetxe
Plaza Zaharraren gainean kokatzen den erdiguneko espazio libre zabalena dela esan daiteke. Gaur egun aparkaleku erabilera du.

4 Ur-txorrotak
Udaran hurrek erabiltzen duten espazio berria. Beroa egiten duenean itzalguneak falta dira, eta erabiltzaileen esanetan, baita iturri eta egonleku eroso eta erakargarriak ere.


5 Frontoia
Nerabeen jolasgune nagusia izateaz gain aparkaleku ere bada kirol kantxa eta elizpearen arteko espazioa. Honek arrisku egoerak sortzeaz gain, jolaserako espazioa murrizten du.

6 Estaziño
Estaziñon daude ikastetxera sarbidea, jolas-parkeak, autobus geralekua, herrigunera zein Zeleta auzora sarbideak... Leku bizia izateaz gain arriskugunea ere bada eta irisgarritasun arazoak ere baditu.


7 Iturburu pasealekua
Ibaiertzeko pasealekua oso preziatua da, baina ez dago behar beste ekipatuta.

8 Osintxuko bidea
Jarduera fisikorako eta paseatzeko erabiltzen den ibilbidea da, lehen trenbidea izandako hau.

9 Auzo mailako topaguneak
Oro har, anitzak eta desberdinak dira. Komunean dutena ekipamendu minimoetan gabeziak dira: eserleku, iturri, aterpe, komun publiko...



Estrategiak

- 
Trafikoa baretu
 Herrigunean trafiko baretua sustatu, oinezkoak lehenesteko eta trafikoa mugatzeko estrategiak gune bakoitzaren baldintzetara egokituz.
- 
Oinezkotzea
 Oinezko eremua lehenetsi, trafikoa debekatuz eta aparkalekuak kenduz.
- 
Lotura sortu / hobetu
 Espazioen arteko lotura berria sortu, edo dagoen lotura seguruagoa eta sendoagoa izan dadin aldaketak egin.
- 
Berdatu
 Espazioa berdatzea, lurzoru iragazkorren azalera areagotuz eta landaretza mota eta tamaina ezberdinak landatuz.
- 
Aktibatu
 Espazioak eskaintzen dituen aukerak zabaldu zaintzarako, topaketetarako eta jolaserako ekipamenduak jarritz: hiri-altzariak, jolasak...
- 
Auzo mailako topaguneak ekipatu
 Auzo mailako espazioak ekipatzea eta aktibatzea proposatu da, auzo bakoitzaren identitateari eta beharrei erantzunez.
- 
Komun publiko berria

Proposamen zehatzak

- 1 SAPA**
 Elementu mugikorren bitartez espazioa banatzeko aukerak ahalbidetzea proposatu da, erabilera estatikoak eta dinamikoak aldi berean posible izan daitezkeen. Gutxieneko ekipamenduan komuna gehitzea gomendatzen da.
- 2 Estaziño**
 Zaintzarako espazioa eta eskola bidea izanik trafikoa baretzeko neurriak hartu beharko lirateke. Horretaz gain, jolas-gunea zein autobus geltoki ingurua berdatzea eta atsedenerako eta zaintzarako ekipatzea proposatu da.
- 3 Plaza + Erregetxe + Ur-txorrotak**
 Herriko erdigunean dauden espazio hauen artean lotura berriak sortzea proposatu da: ibai-ertzetik ur-txorroten parkera, Plaza Zaharra Erregetxe azpiko esparru berriarekin osatuz eta aparkalekuari lekua kenduz.
- 4 Frontoia - Elizpea**
 Oinezko eremu bilakatzeak aukera berriak ahalbidetuko ditu. Frontoia eta kirol-kantxaren osagarri izango diren jolas-lekuak eta egonlekuak jartzea proposatu da, haur eta nerabeei aukerak zabalduz. Elizpea eta Frontoi Larrosa espazio hauen osagarri bilaka daitezke.

